


J. M. SATRUSTEGUI

# BORDEL BERTSULARIA



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-919  
10229

# BORDEL BERTSULARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA  
45 - 46

---

### **COLECCION AUSPOA**

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**  
Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**  
**Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián**  
**(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 240 pezeta      Atzerrián: 325 pezeta  
Ongilleak: 400      "      Ale bakarra: 30      "

J. M. SATRUSTEGUI

# BORDEL BERTSULARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1965

*Depósito Legal S. S. 485/65*  
*Número de Registro 2591/65*

---

IMPRESO EN "GRÁFICAS IZARRA" - PEÑA Y GÓÑI, 13 - TEL. 17031  
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

## A R K I B I D E A

Eskaintza ... ..	9
Itzaurrea ... ..	11
Juan Echamendi ... ..	15
Bordelia ... ..	19
Bordel'tarrak ... ..	23
Bertsularia ... ..	28
Gurasoeri ... ..	33
Donostian soldado (1823) ... ..	37
Karlisten gerlako kantiak (1838 edo 1839) ...	56
“Bihotza zeraut nigarrez urtzen” ... ..	64
Barberaren koplak ... ..	67
Ene andregaiari ... ..	71
Mendekoste bestetan ... ..	77
Etxaundiko kantiak ... ..	82
Ayundamendukoak ... ..	86
Baygorriko hegalian ... ..	93
“Ene izpirituan ba zen zenbait bertsu...” ...	97
“Luzaideko indemnizacionaren gainian” ... ..	116
Aldudeko kantiak (1864) ... ..	123
Eriotz krudel bat (1864) ... ..	133
Limiten gainian (1865) ... ..	147
Napoleon'en bertsuak (1870) ... ..	162
Bankako nexkatuak ... ..	168
Apezenak (1876) ... ..	176
Azken Kantuak — “Sortuz geroz guziek...” ...	187
“Oroit gaiten guziok” ... ..	197

## **ESKAINZA**

**Luzaidar guzleri, atxiki-  
menduaren marka.**



## ITZAURREA

—“Bordel” zenaren kantiak behar ginuzke bildu! —aipatu nion behin batez Gaindolan, bere denboran kantari ona izandako luzaidar bati.

An ikusiko zinuten, nunbait min egin hanako bezala jauzitzen gizona! —Bordelen kantiak erran duzu? —erantzun zidan—; lehen ere halako zerbait egin nahian asi ziren. Bai utzi-re!!!

Eta gero, itz erdika: —...erdara anitz baduela! Beste eskuararik ez dakigu ta!!!

Atsal-askaria egin herri zuten pentzean; etzen belaro. Zeruko lano guzien ilundura berekin izan balu bezain beltz jarri zen, eta etzuen beste itzik atera. Lauetan ogei urteko begi aiek ez dute ikusiko Bordelen liburua: itzaliak dira.


Bertsulariak, frangotan, hori du: ago finen betetzeko ainbat ezti, ez; edo karats aire

poxi bat... (ez baidira danon agoak ere berdinak...).

Ez dain herriz halakorik gerta, hemen dira orai Bordelen bertsuak. Beste mundutik norbait poztuko da, eta Eskual Herrian ez dute kalterik egingo.

Au behar gure artean eskuararik nahasiena!

*Satrustegi*



**BORDELIA.** — Bertsulariak berak egina  
du etxe au, 1859'an. (L. de Lerchundi'ren  
argazkia).

## JUAN ECHAMENDI

1792'gn. urtearekin batetsuan etorri zen mundura Luzaide'ko bertsularia. Errege edo Agerkunde biramoneko solasa dute elizako paperak. Egun txarrak urbiltzen ari ziren mugako errientzat. Gero bertsutan berak erranen zuen bezala, frontierizo oriek.

Balute libertate  
Ikusiak tira,  
Nausi ahal balite  
Nekez erretira  
Guzien protxatzeko  
Entregu baitira;  
Xinurriak bezala  
Irakinak dira.

*(limiten g.; 5)*

Urte bat eta gutxi gehiago zuen haurrak, Paris'tarrak sartu zirelarik Luzaiden. Frantziako erreboluzione denbora zen. Bakoitzak bere larrua ez uzteko ahal bezala atera behar izan zuten erritik. Garai artako liburuek diotena auxe da:

*“Nota 3.<sup>a</sup>: El 25 de abril de 1793 invadieron los republicanos franceses la Villa de Valcarlos, cuyos habitantes tuvieron que emigrarse abandonando todo y estuvieron emigrados hasta principios del año 1796, quienes a su vuelta encontraron todo incendiado sin esceptuar habitante alguno”. (Arch. Par. de Valcarlos. Indice I, fol 20).*

Iru urtez erritik kanpo, mundura etorri orduko. Eta nun ibilia ote ginuen, edo ibilia ote zuten altzoko haurra? Garai ortan sortutakoak nun bataiatu ziren badakigu; Auritz<sup>7</sup> tik asi ta Billaba arteko erriak aipu dira liburutan. Zoin beren alde joanak ziren danak.

Nunbaitik heldu-arazi didate, Mezkiritz eta Biskarret alde hortan aideak izan behar zituela Bordel<sup>8</sup>ek. Hori hala balitz ez ginuke buru-hauste aundirik nun egona izango zeu jakiteko.

Badira herrian etxeak ibilaldi auen marka arrian dutenak. Batek dion bezela: *“Esta casa fue/quemada en ti-/enpo de la guerra/ el año de 1793 la e-/cho acer Gose Cas-saos frances y su muger / el año 1796”*. (Marrimaite).

Alare, elizako liburutan erraiten da gehi-ena. Erre ondoan, berriz eginak dira orai ditugunak. Bordel'en bataioko paperrak ez du ekartzen zoin egunez bataiatu zuten. Urtarrillaren (ilbeltzaren) zazpian sortu zela bakarrik. Bere aitatxi Mendibe'koa zela agertzera emaiten du. Ait'amak, Bordel deitutako bazter etxeko nagusiak ziren.

Fermin Irisarri izan zen urak eman zizkion apezka; eta Fr. Gabriel Zizurkil'darra, gerla ondoan liburuak zuzendu behar izan zituena (1).

Juan eta Maria Gaztambide, aitaren aldekoak, ereman zuten elizara.

Bere aurtzaroko ezer gutxi dakigu. Bertsutan, gerlakoa du suyeta ugariena; ezagu-

---

(1) N. 2 1792 — Juan Echamendi en casa de Bordel.

El día siete de enero del año de mil setecientos y noventa y dos nació Juan Echamendi hijo legítimo de Pedro y de María Josefa Larralde, dueños de la casa de Bordel. Abuelos paternos Miguel Echamendi y María Gaztambide, él de Mendive en Francia, ella de aquí. Maternos Nicolás Larralde y Juana María Auzqui naturales de esta. Padrinos Juan Gaztambide y María Gaztambide. El bautizante Dn. Fermín Irisarri. Fr. Gabriel de Zizurquil, Vic<sup>o</sup> Int<sup>o</sup> de Valcarlos.

(Lib. 2.<sup>o</sup> de Baut.; Fols. y ult. y vuelto. Apéndice).

tzen ditugunen irutatik bat. Izatez ere, halako denborak ziren aiek! Auek dira gai ontaz idatzi zituenak:

Napoleón I (1808).

Donostian soldado (1823).

Karlistenak (1838).

Indemnizaziokoak (1856).

Limiten gainean (1865).

Apezenak (1876) (bigarren karlistenak).

Napoleón III'gna. (1870).

Zerbaiten gatik zion zahartu ondoan:

“Beldur izan bear du  
Gerlate aundier:  
Etan ezitzen dira  
Zenbait gizon fier.  
Biotzez emaniro  
Konseilu guzier,  
Penarik ez desira  
Auzoko herrier;  
Jaunak barkatu zuen  
Bere hiltzaliar”.

(*Limiten gainian, 9*)

Bertsu auetan sartua da Bordelek bere nortasuna. Bi puntu hunkitzen ditu: biziak eman dion ozpina —ainbertze gerla!; eta sinistreak oliostatzen zion bere bihotz gozoa.

## BORDELIA

Luzaideko bazter etxe baten izena dugu  
"Bordelia".

Betidanik etxalde azkarra izana, erran gi-  
nezake, kopletan behar baginu:

Badu erreparu (1)  
Ta badu gero lur,  
Ohianian ere  
Erre-ala egur;  
Negu luzeari  
Sekula, ain segur,  
Bordelen txakurrik  
Etzateken beldur.

Bordel bazter-etxea anitzetan errerik iza-  
na da. Azkeneko aldian bertsulariak berak  
goratu behar izan zuen. Lenbiziko eztaia-  
ren erditsutan ezarria zakon bere izena arri go-  
rrian:

Juan Echamendi

(1859)

---

(1) Erreparu = laneko famili ona.



Aditu izan dut bertsutan bezala ari zela, behar ordua balin bazen, beste lan batzutan ere. Beste anai batekin biek egina izaten omen da etxe ondoko borda aundia. Eta istillu gorria ikusia, naski, teilatu-kaldorreko zura goratzekoan! Emezortzi urte zituen eta bere denborako bertsuak an utzi etzituenean, pozik.

Baita, erraiten dute, espos-eguneko arropa pikatzen ere esku bota zuela... Ori ala balin bada, beste ez dakigun frango gauzetan etzen gibelean geldituko.

Errian amalau etxerik zeharrenetakoa izatea anitz da Luzaiden. Aspaldiko erran zaharra bada amalau ohoinek (lapurrek) eginak izaiten zirela. Itxura gabeko gauza! Amabigarren mendean Leyre'ko fraileak an agertzearekin egin baiziren lenbiziko etxeak; Irauzketa eritegia zen.

Erran beharko ginuke eliz gizon ariek izan zirela ohoinen buru.

Hori bai; ebasle edo fraile, amalau ziren lenbiziko bizitegiak, eta Bordelia bat. Ostatatatik bizi zirela ere badakigu Jondoni Jacquesen bideari esker.

Bertsularieren denboran, naiz gero ta gero-re, zerbait zen Bordeleko arri-tontorra

Luzaiden! Larrain txiki baten antzeko zela-laitxoak ba baitu ondoan, an biltzen ziren gairak firletan (2) jokatzeko. Igande atsaldetako iantza lekua ere izana da behin baino gehiagotan. Ihauteritan, berriz, an egiten zen mutilen axeri-dantza, etxez-etxe arraultze ebaska eguna bota ondoan. Larruz bezi zen ebaslea (delako, axeria); eta emazte arropan, saskia eremailea. Oraindik galdu ez den joko batekin buluzten zituzten beren lagunak, gero afaria elgarrekin egiteko.

Eta Bordeleko mizpira zer? Arbol txikia izaten zen, eta mizpira gutxi ekarriko zuen, baina ze gauzak! Arri-tontor aipatuaren gainean bota zituen erroak eta, nola aunditu behar zuen gaixoa!

Gaiñekoletako haurrer entzuna diet laminen xamindeia (3) zegola haren ondoan, eta keia ateratzen ikusten zutela neguko izotzetan. Nik noronek ere ikusi izan dut delako ats bat noizbait. (Laminena!!) Inguru artan bizitzen omen ziren eta egun batez joan izan behar zuen lamin bat bisitan bazter etxe zontaitera. Deabrua ez baidago lo, nun gal-

---

(2) firletan jokatzeko = jugar a bolos.

(3) xamindeia = chimenea.

tzen duen atsalde artan urrezko broxa (4) gure laminak.

Broxaren billa itzuli baina, ezetz; ariek etzutela eskuratu!

Gauaz etxeke arto alor oberena fundikatu eta arriz beterik utzi izan behar zieten broxa zela medio. Orduan, apeza deitu ta berrehun urtendako kasatu (lekutu) zituen andik. (Badira, belar izpi ainbat urteindako bialdu zituela diotenak ere) Nolanahi dela, geroztik an omen dira lurpean; eta xuxen Bordeleko parrian dukete sukaldea.

Bideberriko langilek tiroka autsia dute laminen xamindeia. Leize txiki itxurako arteka atera zen eta, aski lan izan zuten hura ezin betez. Bideberria lenago zen laminen kontuak baino.

---

(4) urrezko broxa = broche de oro.

## BORDEL'TARRAK

**BORDEL:** 1428'ko liburutan ikusi dugu lenbiziko aldiz izen au. Iruñako zerga edo diru-konduak ekartzen dituen orri batean Luzaideko etxeak aipatzen dira, eta an erraiten da:

“Ittem Johan q. vive en la casa llamada Vordeu” (5).

Garai artan etxearen izena aski izaten zuen jendeak, errian ezagutua izateko. Handik gero-ta gero-re, etxearen izena berarekin zuen Bordeleko naguseak; 1644'ko paperretan ikusten da:

“Sancho de Bordele, casa llamada Bordele” (6).

XVII'gn. mende ontan erri guzira zabaldu zen izen au, eta elizako liburutan nun-nahi ateratzen dira bodeltarrak .

---

(5) Arch. Gen. de Navarra. Comptos. “Fuegos” 1428.

(6) Arch. Gen. de Navarra. Comptos. “Fuegos” 1644.

**AUSQUI** edo **AUZQUI**. Bertsulariaren etxeak badu gaineko leioan arrimarratu lúze bat. Itxuraz, atari aundia oso-osoan artzeko egina izan behar zuen, naiz gero leioari sartu.

Erdi-erdian badu gurutze ederra, eta ezker-eskuin izen marrak iru lerrotan. Bazterretan berriz, launa erronda eta kurutze ttipi alde bakoitzeti.



Ikus daike: “Nicolas de Laralde, Mari Ana Ausqui, Maria Cosef”. Ausqui zen etxeke deitura. Sancho de Auzqui eta Juana Gaztanbide ziren, delako Mari Ana Ausqui’ren aita amak. 1742’ko liburutan agertzen da orien ezkontza (7).

(7) Mari Ana’ren izena iru zatitan ikusten da arrian: MARI (ezkerreko aldean); AN- (erdian, gurutzearen beso aspiko marra txikitan); azkeneko -A, berriz, eskuineko aldean.

Bertsulariaren bataioko paperak, *Mari Ana* beharrean, *Juana Maria Auzqui* ekartzen du. Anitzetan gertatzen da aldaketa au Luzaideko izenetan. Ana eta Juana, izen bera balira bezala artu oi dituzte. Ori be-

**LARRALDE:** Ana Mari, etxeko alaba, Auritz'ko Larralde batekin esposatu zen 1769'gn. urtean. Nicolas Larralde'k bere sort-errian baino denbora gehiago egina zuen kanpoan. Zazpi urteko haurra eraman zuten Ehialarrera (St. Michel le Vieux) eta andik etorri zen Luzaidera. Berez, Echalar'tik zuten deitura au (8). Senar-emazte bien izenak leio gaineko arrian agertzen dira. Beren alaba María Josefa ere aipatzen da.

**ECHAMENDI:** María Josefa Etxera egitean, berriz ere deitura aldatzen dute. Naguse gaztea, Pedro Echamendi, Reklusako semea zen. Onen aita Mendibekoa (9). Auek eman zuten mundura Juan Echamendi, "Bordel bertsularia", 1792'ko Urtarrillaren (ilbeltzaren) zazpian.

**ARROSAGARAY:** bertsulariaren alaba Ana Josefa bietan ezkondu zen. Lenbiziko senarra, Arrosagaray'tarra, Ehialarko se-

---

ra gertatzen da orai ere. (Ikusi: J. M. Satrústegui: "Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca". *Euskera*, 1961, pág. 222.)

(8) *Arch. Parroquial de Valcarlos*; lib. 2.º Cas.; fol. 57; 1769.

(9) l. c. Lib. 2.º Cas.; fol. 116; 1789.

mea; bestea berriz, Martin Gortari, Kurutzeharrekoa zuen. Lenbiziko ezkontzako deitura gelditu zaie etxean.

Bertsulariak lau haur beintzat bazituzken. Liburutan bildu ditugunen izenak auk dira: Ana Josefa (1838); Francisco (1840); María (1843); eta Miguel (1847) (10).

Familiko xehetasunak jakiteko, berriz ere Kaliforni aldera, jo dugu, eta ona emen Bordeleko Juan Cruz'ek emandako berriak:

“Gure aitari entzuten nion, delako anai famatu hura argintza eta zurgintzan anitz lan egin zuena, gero Arrieta errira ezkondu zela: Porkachoin etxera. Artarik barreatua da parentela aundia Echemendi izenian. Nik ezagutu dut Pedro Martin (Porkacho) nausia; eta

---

(10) *Hiltzeko ageria:*

N. 7, de 1879: Juan Echamendi, Bordel.

Día treinta de Mayo de mil ochocientos setenta y nueve, habiendo recibido los Santos Sacramentos murió a los ochenta y siete años de edad en esta Villa de Valcarlos Juan Echamendi, natural de la misma, marido de Juana Harriet natural de Arneguy en Francia, y dueños de la casa de Bordel de esta espresada Villa, no testó y al día siguiente después de los funerales acostumbrados fue su cadáver conducido al Campo Santo. y firmé D. Nicolás Polit Vic<sup>o</sup>.

(Lib. 3.<sup>o</sup> de Dif.; fol. 74 v.)

bertze bi seme etxe berekuak baziren Iruñen (Pamplona'n). Bazuten larru fabrika (Curtidos y charoles, Barrio Rochapea).

Bertsulariain umeak: Gure aitaren ama, *Ana Josefa*. Hau ezkondu zen Bordele-  
ra; orduan galdu zen Echamendi izena eta asi Arrosagaray.

Seme bat bazuen bertsulariak, *Migel* izenekoa. Hau ezagutu dut ontsa. Ondarrola, Achi'nea ezkondu zen. Gero, alaba egin zuen ondoko eta ortan gelditu zen Echamendi izena, an ere.

Bertze seme bat, seurik, uste dut bazuen bertsulariak. Ez dut ezagutu, bana aditu bai anitzetan. Frantzian ezkondu zen, Azkarate herrira; eta uste dut etxearen izena Ferranyoinia zela. *Francisco* izan behar zuen bere izena; bana ez niz segur.

...gure aitaren denboran jakiten ahal ginuen anitz, iskiatu bagintu orai bezala; bana orduan guti iskiatzen ginuen.”  
(Calif. Otsailain 26'an, 1965).



## BERTSULARIA

Enrique Zubiri, Manezaundi, luzaidarra zen Bordel bezala, eta beti aipu onean zuen gure bertsularia. Berak zionez:

“Oxalde, Etxahun eta Boryel ziren mendiz bertze aldeko iru bertsulari aipatuena...”

Eta Bordelez, bereziki, erranen zuen gero:

“Diteken gizonik izaite eta yite ezti eta berexikoa zen eta, eskual kantuak eta neurtitzak bihotzian errotik sartuak zituen” (11).

Bertsuak “bihotzian errotik sartuak zituen gizona”; egia! Elaike bere nortasuna obeki agertzera eman lezaketen itzik arrapa.

Lur iraultzen ari bazen ere, paperra eta luma sakelan zituen beti; eta noiznahi lana utzirik asiko omen zen zirrimarren egiten.

---

(11) A. Irigaray. “Prosistas Navarros”. pág. 58.

“izaite”, es manera de ser, temperamento, carácter personal.

“yite”, en cambio, es facilidad de expresión, agudeza.

Beste batzutan, berriz, aitzur giderra zerrura begira utzita itzuli ere bai etxera, papperrik ez bazuen berekin. Erasiatzen zuen orduan bere amak, "etzela hura laborari baten laneko manera-ta". Ez erranaren pare...

Bordelen bertsu geheienak paper-gauzen kutsua berekilan dute. Anitzetan berak erraiten du:

"Inprimerian daukat orduko suyeta".  
(Limiten gainaian).

"Bankako neskatoen" kantutan ere aitortzen du:

"Serioski izan dut nunbaitik ordena Bertsuen paratzeko ar dezadan pena".

Orek ez du erran nahi bertsulariaren batbateko etorri hura falta zuela Echamendik. Erriaren sudurra gauz auetan, ez da nolana hiko sudurra; eta *Oxalde-Etchaun*, bi bertsulari aipatueneekin batean ateratzen bazuen Bordelen izena, jendearen ustez on ona behar zuen izan.

Gertatzen dena da bertsulariaren lanak bizi laburra duela: behin aditu eta galdu... nun eta ez den artze oneko norbait an gertatzen.

Beste batzutan berriz bertsularitzan asma-  
tutako gauzak zabaldu lezazke egileak berak,  
bakardadeko lana bezala; bainan, delako  
paper-kutsu hura etzaie faltako.

Behin, bertsu gauzetan anitz dakien adis-  
kide batek zion:

“Beti ere —gehienetan bederen—, zer-  
baitek behartuta lan egin oi dugu: edo  
ogibideak, edo barneko erdi beharrak,  
edo zerbaiti diogun maite-garrak”.

Bordelek etzuen bertsutarik bere egunoro-  
ko ogia etxeratzen; eta erraitekotan nago itz  
neurtuen “maite-garra” baino-re gehiago zue-  
la, delako “erdi beharra”. Hori ikusten da:  
famili guzitan izaten dira beren goraberak,  
eta gure bertsulariak ere izan zuen “ñika”  
zerbait etxean. Arnegi'n, Baxo'ko alaba zuen  
emaztea, eta iges egin zion sortlekura. Uste  
izan zuken gaixoak, Manez joanen zitzakola  
billa neskato denboran bezala; bainan, Bor-  
delek bazuen aski lan arto jorran.

Zonbait egunen buruan, alorrean ari eta,  
nun ikusten duen eldu zakola emaztea. Elgar  
artu baizuten naguse mutilak, erraiten dio  
hunek:

“—Etxekoandre! Ze berri da Baxoan?

Eta naguseak itzetik ortzera:

“—Etzela onendako an deuse laxoan!”

(Nolabait lehertu behar eta... bertsuka).

Badu bizian beste gertakizun bat ere. Tei-  
latua itzultzen ari zela, semearen garraxiak  
hautemanik, begiak itzultzen omen ditu eta,  
ikusten otsoa etxeko auntza ogoan duela.  
Beste batek oi u eginen zuen edo laster otso-  
aren ondotik. Arek ez!

Xutik jarri eta bertsu au bota zuen:

Otsoak tarrapata  
Semeak zalaparta  
Eta auntzak marraka,  
Ar giten gu koplaka.

Lehenik bertsulari zen eta gero auntza-  
ren jabe.

## BURASOERI

Bere gurasoeri buruz emanak ditu Bordelek bertsu auek; J. M. Iraburuk bildutakotan atzeman nuen kantua, gero Kaliforniatik bialdu zidan Bordeleko Juan Cruzek. Onek dionez, "hauek dira Bordel'en bertsu bakarrak, kantu liburutan atzeman dituanak". Ez dakigu nungo liburutan.

*Airea: "Ikusten duzu goizean"*

- 1/ Sortu gituzu holetan  
Gu iragan denboretan,  
Gero ezarri troxetan;  
Asko aldiz an ama maiteak  
Mantenatu bularretan,  
Atxikirik besoetan  
Aitak ere belaunetan,  
Gero laster aztekotan.

1/1. Bertsulariaren denboran *olak* edo burdin lantegiak ari ziren zabaltzen Luzaiden. *Basaburua* deitzen zen Bordelen etxe ingurua, eta geroztik hunat *Gaindola* erraiten diote. *Gaiñekoletan* zen beste lantegi bat; lenbiziko izena *Ançola* edo *Anxola* zuen. *Ondarrola* dugu orduko beste izen berri bat.

oletan = en el lugar de las ferrerías.

1/2 iragan denboretan = igarotako denboretan.

1/6 atxikirik = edukirik.

2/ Azi gintuzun gazterik  
Aita amari gostarik,  
Ez, hortaz ez dut dudarik;  
Ez dugu aurkitzen guk heiekin  
Baino bizi egun oberik,  
Ez eta heien parerik,  
Naiz ez ginuen mamarik  
Zeren ginen pobretarik.

3/ Ortakotz diot egia  
Zeren den gauza argia  
Guretzat dela legia:  
Aste guzian lanian ariz  
Irabazteko ogia,  
Begiratzuz zuhurtzia  
Iragaiteko bizia,  
Eta ait-amez oroitzia.

4/ Ait-amez gira oroitzen  
Eta begiak bustitzen  
Ez tugulakotz aurkitzen;  
Gure aurtasunean bazakiten  
Hek gure ongi altxatzen,  
Etsenplu onen emaiten,  
Gutaz ziren urrikaltzen;  
Eskerrak deztegu biurtzen.

2/7 mamarik = dirurik.

3/6 zuhurtzia = economía.

4/5 Hek gure ongi altxatzen = Aiek gu ondo azitzen.

5/ Aita amek pena asko  
Jasan dute guretako,  
Bai, gure ongi azteko:  
Urte on degu desiratzen ta  
Jainko Jaunak laguntzeko,  
Osasun on emaitako,  
Luzaz biziartzeko,  
Gero zeruan sartzeko.

6/ Ama Birgina maitea,  
Zato gure laguntzera,  
Bai dugu behar-ordia;  
Eta munduan segi dezagun  
Zeruetako bidea,  
Otoiztuz zure Semea:  
Hark dezagun onestea  
Eiten diogun galdea.

7/ Zeruko Jainko aundia,  
Gutaz miseriordia,  
Atxik guri bertutia;  
Aita ameri, bai eta umeri,  
Zuk emaguzu grazia  
Uroski gure bizia  
Iragaiteko guzia  
Gero zeruko loria.

6/2 zato = atoz.

6/3 behar-ordia = bear-ordua.

6/7 Hark dezagun = Ark onetsi dezaigun.

7/3 atxik = gorde.

7/6 uroski = zorionez.

J. M. Iraburu. (Cuaderno).

1/4 Asko aldiz ai.

2/1 Azi gituzu gazterik.

2/5 bizi egunez oberik.

2/8 zeren garen pobretarik.

Laugarren bertsuan ez da agertzen irugarren punda.

4/5 gure ongi altxatzen.

5/8 gero zeruan gozatzeko.

6/4 bai mundu ontan segi dezagun.



## DONOSTIAN SOLDADO (1823)

1823'an Bordel soldado zegon Donostian. Bere denborako istillu larrienak an ibiliak ditu. Zorigaiztoko egun batez, uda sarreran, beste alderdira pasatu nai izan zuen. Bederatzi lagun ziren, atsaldeko bederatzitan murail azpiko zulo batean sartu zirenak (1). Nork esan bear zuen salatzailea beren artean izanen zutela!

Zulotik atera orduko erori ziren franzen eskutan (2). An asi zen aien gurutze-bidea. Erriz erri, gutxi jan ta erdi buluzi ibili zirela esaten digu bere bertsutan.

Zenbat aldiz iltzeko etsirik! Egun batez, ehun makil-ukaldi edo zigorrada, bakoitzaren bizkar gainean eman zituzten. Luzaiden

---

(1) Manezaundik zion "La Mota" delako gazteluan sartu zituztela, lurpeko gela beltz batian, obendun bezala.

Ikusi: A. Irigaray "Prosistas Navarros"; 59'gn. orrian.

Ala bazen, bertsutan ez du erakusten.

(2) Los cien mil hijos de San Luis.

esaten dute Bordeli berrehun tokatu zaizkiola. Bertsutan ez esanagatik, beste anai gaztea berekin omen zen eta, an geldituko zelakoan, biena bere gain ematea eskatu izan behar zuen. Ori bera zion Manezaundik (3).

Juan Cruz Arrosagaray'ek "Paluen kantia" deitzen ditu, eta gazte denboran eginak izan bear zituela, uste du. Soldadotatik itzuli ta laister (4).

1/ Mila zortzi ehun eta  
Ogei ta irurian  
Zerbitzuan ginauden  
Donostia hirian  
Liberalitateko  
Bandera berrian,  
Hartarik desertatu  
Inozentkerian,  
Miserable erori  
Etsayen erdian.

---

(3) "...eta hemen agertu zen nolako bihotza zien gure "Boryel" pertsulariak. Bere anaia ere harekin zen, obendunen artean, bainan osagarri txarrean eta sukarrarekin izanik, Boryelek ezagutu zien izigarriko zigorrada haren ondotik etzela bizirik aterako gaixo anaia. Ordian galdetzen du aitzindarier otoi utz dezaten berak hartzea anaiaren ordainak, eta baime-na ardietsirik, bere bizkar buluzian emaiten dazkote berrehun makilukaldi." l.c.

(4) Lizarraga'ren paperak, 1880 gn. urtean emanak bezela ekartzen ditu. Orduko hila zen egilea.

2/ Hura zen ekainaren  
Amabigarrena,  
Gauazko bederatzia,  
Partitzeko orena;  
Konda ahala bana  
Gehiago du pena;  
Sofritzia ere ahal da  
Hala dabilena,  
Etsaiaren esklabo  
Munduko abilena.

3/ Murraila pian sartu  
Bederatzietan,  
Kanale bati barna  
Atera errestan;  
Bederatzi baginen  
Konpañia artan,  
Zenbaitek malezia  
Zuten beren baitan,  
Deklaratzera nua  
Aski doloretan.

- 2/1 Ekaina = Junio.  
2/4 orena = ordua.  
3/4 errestan = arrastaka.

4/ Murrailatik atera  
Ondoko segida  
Errepartitu ginen  
Oro, bana bida:  
Seinale garbia zen  
Ez ginela fida,  
Guardiak erne zauden  
Azantzer begira,  
Kontent ginen bizirik  
Heltzia zubira.

5/ Zubira ginenian,  
Oro elgarrengana,  
Presentatzeko lotsa  
Guardiarengana;  
Batek, berak juaiteko  
Hartu zuen plana;  
Gu bida gibeletik  
Beldurrez engana:  
Arribada hunian  
Sartzeko orena.

4/4 oro, bana bida = danak, bana-binaka.

4/8 azantza = soñua, otsa.

5/7 gu bida gibeletik = gu biok atzetikan.

6/ Arribada baneza  
Ongi manifesta,  
Lastima ez laitenik  
konpañian ezta:  
Bi aldetarik tiroka  
Gure errekesta,  
Kosta aize bateki,  
Lur barna tenpesta,  
Han ikusi ginuen  
Terribleko besta.

7/ Bestaren erretoria,  
Dolore tristia,  
Miletan aisago da  
Orai erraitia:  
Ingurina guzia  
Etsaiez betia,  
Miserable zen gure  
Estremitatia,  
Ez ginuen dudatzen  
An desegitia.

6/6 errekesta = estima, aprecio.

7/5 ingurina = alrededores.

8/ Parlamenduko bida,  
Tristeziareki,  
Etzanik konserbatu  
Biziak uroski,  
Gero frantzesetara  
Juntatziareki,  
Nezesario zela  
Juaitia, preziski,  
Jeneralarengana  
Gure arrazoineki.

9/ Prinzipal hari nion  
Eskatu grazia:  
"Jauna, otoi barkatu  
Gure ausartzia!  
Konpañia badugu  
Gibela utzia;  
Desiratzen ginuke  
Harat laguntzia  
Konbeni balitzaizu  
Gutan fidatzia".

8/4 uroski = zorionez.

8/8 preziski = nahi-tezpada.

9/4 ausartzia = atreverse, atrevimiento.

10/ Errepostua fite  
Prinzipalak neri,  
Oben egin liola  
Bere graduari.  
“Jauna, urrikal zite  
Gure manerari,  
Biziaz nahi dugu  
Berme jarri  
Deus gerta balakio  
Zure armadari”.

11/ Soldaduak an ditu  
Manatzen berehala,  
Konpañiarengana  
Lagun gintzatela;  
Zenbaitek uste zuten  
Hilak gintuztela,  
Alegerarik zauden  
Herioa bezala,  
Otoitzak guretako  
eginik zaudela.

10/1 fite = pronto.

10/3 oben egin liola = faltatuko ziola.

10/8 berme = rehén.

10/9 deus = ezer.

10/10 armada = ejército.

11/8 herioa = muerte.

12/ Fite konsolatzeko  
Gaizki abiatu,  
Desfortunak holako  
Seinaleak ditu:  
Gu ere guardiara  
Zortzi arribatu,  
Gidari berriekin  
Bidiari lotu,  
Jeneralari behar  
Zela presentatu.

13/ Jeneralarengana  
Arribatzen gira  
Pasaporten artzera  
Tolosa hirira;  
Bi jendarmen artian  
Atseko Ernanira  
An sala polizian  
Alojatzen gira,  
Miserabliak, ordre  
Onaren begira.

13/6 atseko = arratseko.

13/9 ordre = agindu, orden.



14/ Tolosara arribatu  
Biharamunian,  
Ilaren amairu  
Garren egunian;  
Zuzenak ginelakotz  
Opinionian  
Dekret bat eman zuten  
Umore hunian  
Esplikatu gabe zer  
kausaren gainian.

15/ Dekretatu zenian  
Tolosan konpleta,  
Sententzia emaile  
Ba zen fornimenta;  
Nigar iturrietan  
Iru madamita,  
Guri ordenatziaz  
Ainbertze tormenta;  
Bainan bertzek ereman  
Ontsa lotu eta.

15/4 fornimenta = aukera.

15/10 ontsa = ongi, ondo.

16/ Utzi ginuenian  
Tolosa gibela,  
Segur da bihotzian  
Pena ginuela;  
Ordenatzen zaguten  
Heriotze krudela,  
Anitz pikarderia  
Egin ginuela,  
Michelenaren plaza  
Behar ginuela.

17/ Billafranka herrira  
Hurbiltzen pausia,  
Begien bistan daukat  
Hango presentzia:  
Lehenbiziko pena  
Zepuan sartzia,  
Bigarrena, esperantza  
Galtzeko bizia,  
Hobe zela Jainkoari  
Bihotza altxatzia.

18/ Bertze bi egunetan  
Gero Mondragora,  
Irugarrena pausan  
Dezagun ohora;  
Gau erdiko jeikirik  
Bidiari gora,  
Guri beti bezala  
Hiltzia gogora,  
Nonbaitereko ditxa  
Gabeko denbora.

19/ Salinas'ko mendira  
Gira arribatzen,  
Unibersalak hasi  
Gure arrobatzen:  
Ez diru ez arropaik  
Etzaigu baratzen,  
Bertzen zaharrak ditû  
Soinian paratzen,  
Halako pobrerikan  
Ez da paseatzen.

18/4 ohora = onratu.

19/4 arrobatu = ezer gabe utzi.

19/8 baratzen = geratzen.

20/ Unibersal horiek  
Zer kaballeruak!  
Gerla bertzek egin ta  
Soldadu beruak;  
Gizon mañifikuek  
Dituzte graduak  
Herodesen pareko  
Salbai borreguak.  
Legerik ez dakiten  
Jende barbaruak.

21/ Bitoria aldera  
Berehala martxe,  
Uste ginuen hiltzen  
Ginuztela hantxe;  
Gure kontra espantuz  
Hango dama beltzek,  
Presentatu ginela  
Sobera berantxe,  
Barkamendurik etzela  
Guretzat oraixe.

22/ Gobernadoriaren  
Gana arribatu,  
Gure manerak oro  
Hari deklaratu;  
Kristauaren legian  
Harek errezibitu,  
Bai eta kordetarik  
Guziak libratu,  
Nola bere semeak  
Harek konsolatu.

23/ Konsolatu ginituen  
Kaesa beruan,  
Eta menbro guziak  
Paratu libruan;  
Despatxa gintzazkela  
Etxerat lerruan,  
Balitz gure eremuko  
Zonbaiten graduan:  
Gure tribunalia  
Zela Nafarruan.

22/7 kordetarik = soketatik.

23/2 kaesa = caricia.

24/ Nafarruako seme  
Kreatu mundura,  
Probintzian penetan  
Ibili ardura;  
Arribaturik ere  
Gure eremura,  
Mila barbaridade  
Eta arrangura:  
Purgatoriotarik  
Sartu infernura.

25/ Infernu bat in daike  
Españolezkua,  
Ez dute ikusi nahi  
Presuna justua;  
Nola zerbitza diron  
Jendiak gustua?  
Beti errespetatzen  
Dute injustua,  
Lur huntan dugulakotz  
Gobernu gaistua.

24/3 Probintzian = en Guipúzcoa.

24/4 ordura = maiz.

26/ Gobernaren kontra  
Erreklama naite,  
Behar den erregela  
Ez dutela maite;  
Jende miserabilia  
Arrobatzen dute,  
Pena da irautia,  
Erran ahal daite  
Afer mantenatzen da  
Sobera tunante.

27/ Tunantekeriako  
Arraza guzia,  
Damurik utzi behar  
Munduko bizia!  
Odolian dutela  
Beren noblezia,  
Negoziatzen dute  
Mila malezia,  
Larrutu nahi dute  
Jende buluzia.

26/9 afer = alper.

28/ Nafarruako serbil  
Lepondo gorriak (4),  
Luzifer lotsa diro  
Haren koloriak;  
Montañesak girela  
Oro traidoriak,  
Martier finitzeko  
Emanez odriak.  
Arrasatu balitu  
Enperadoriak!

29/ Zortzira, ehun palo  
Ordenatu zauten,  
Duda niz halakuek  
Arimarik bauten;  
Ez dakit nehork ere  
Sinetsiko nauten,  
Zenbat purgatorio  
Erakutsi zauten!  
Bihotza trankilago  
Bizi gira aurten.

27/3 damurik = zoritxarrez.

27/10 buluzia = larru-gorritz.

---

(4) Nafarruak ba ditu Mendi-aldea ta Erribera. Beherekoendako gu "montañesak" gera. Ez da euskeraren gora-bera bakarrik: askotan aragonesekin ikusteko gehiago dute gurekin baino. "Nafarruako serbil lepondo gorriak", Bordelen bertsutan erribera-koak dira; "montañesak" berriz, euskaldunak.



30/ Gure libertatia  
 Ongi etorri dela!  
 Lehen ikusi dugu  
 Denbora krudela,  
 Estima dezagula  
 Gure amodio fidela;  
 Pena duten guziak  
 Konsola ditela,  
 Atsegin duteneri  
 Egin guri bezala.

---

*“Pedro Lizarraga’ren bertso papera”*. — Eskuz idatzirik dago. Asieran esaten du: “Cantiac formatiac luzaiden Juan Echamendi zenak zorci eun eta lauetan ogoiyan”. Orduko hila zen bertsularia, 1879’ko mayatzaren 30’ean. Behar bada Lizarragak bere “kopia” atera zuen urtea izango da asieran duena.

Pedro Lizarraga Bordelen denborakoa zen eta, berez, maistrua. Luzaiden, Karrikaburuko semea, paper asko utzi zuen galdu ta erre ez balira.

- 2/3 gabazco bederatci etan.
- 2/5-8 conda ahala bano  
 gehiago pena  
 sofritcera heldaite  
 hala dabilena.
- 4/7 chinta minta guzier  
 baizauden begira.
- 7/7 miserablean gure.
- 7/9 ez guinuyen dudatzen.
- 9/1 prinzipalki nion  
 eskatu grazia.
- 9/9 konbeni balit zauzu.
- 10/1 kontestazionia  
 yeneralak niri.

- 10/8 babec berme yarri...
- 11/1 soldaduak ditu ("an", falta)
- 11/4 lagun ginintzatela
- 11/6 hil ginin tuztela.
- 13/2 abiatzen gira
- 17/2 hurbilen pausuya
- 19/3 Unibersal oriec  
hasi arrobatcen
- 19/5 ez diru ez arropa.
- 19/7 heyen chaharrac ditugu

Ogei garren bertsua, Lizarragak 28'gn ekartzen du.

- 20/8 salbai borreguak
- 21/9 etcela guretaco  
perdonaric oraiche.
- 23/6 guziak lerruan.
- 24/6 gure errenura.
- 25/1 infernu bat egin daite.
- 25/5 nola zerbitca diro.
- 25/9 tierra huni darayo.
- 26/9 afer mantenatceco
- 27/6 beti noblezia
- 28/4 hayen koloriak
- 28/7 matier finitceco
- 29/8 eracutsi dauten
- 30/5 estima daite

Ikusi: "*Nafarroko bertsularia Donostian soldado*", EGAN, 1964, 77'gn. orr. Luzaiden kantatzen den bezala. Gauza asko Lizarraga'ren paperetik artu izan dira.

- 2/7 sofritzera eldaite ala dabilena.
- 4/7 xinta minta guzier baizauden begira.
- 8/1 parlamenduko biga.
- 9/1 prinzipalki nion
- 10/1 kontestazionia jeneralak niri.
- 10/3 oben egin niola

- 10/8 *batek* berme jarri.
- 11/4 lagun ginintzatela.
- 11/6 il ginintuztela.
- 11/8 *eroa* bezala (*erioa* izan behar du)
- 12/5 gorde guardiara.
- 13/2 abiatzen gira.
- 16/1 utzi ginuyenian.
- 16/4 pena ginuyela.
- 17/1 Millafranka errira urbilen pausua.
- 18/7 *guti beti bezala* (*guri*).
- 19/2 unibersal oriek asi arrobatzen.
- 19/5 ez diru ez arropa.
- 19/7 eien xaarrak ditugu.

Ogeigarrena azkenean jarririk dago. Alare emen obeki eldu da.

- 20/8 salbai borreguak.
- 21/9 etzela guretako perdonarik oraixe.
- 22/6 ark errezibitu.
- 23/6 guziak lerruan.
- 23/7 gure erreinuko.
- 24/3 Probentzian.
- 24/6 gure Erreinura.
- 25/1 egin daite.
- 25/5 nola zerbitza diro.
- 25/9 tierra oni derayo.
- 26/9 afer mantenatzeko.
- 27/6 beti noblezia.
- 28/4 aien koloriak.
- 28/7 matier finitzeko.
- 29/8 erakutsi dauten.
- 30/5 estima daite.

Ikusi: "Juan Echamendi, "Bordel". (Datos biográficos) BAP 1958. p. 462. Orduan uste ginuen bertsu auek beranduan eginak zituela Bordelek.

## KARLISTEN GERLAKO KANTIAK (1838 edo 1839)

Asieratik gaizki sartu ziren Luzaiden karlistak. Errian beste alderdikoak agintzen zuten, eta aiek mendiz mendi ibili besterik ez zaukaten. Bestalde, gerla beti gerla da, eta astokeriak egiten dira alakotan.

Karlisten lenbizko gerlako kantuak dira, (1832-1839), eta Bordelek 1838'an jarriak. Ikusten da beroan egin zituela. Samintasun aundia erakusten dute, naiz doñu edo aire polit eta argian kantatzekoak izan.

Bordel'ek bere erriko jendeak senditzen zuena erakusten du. 1837'an agertu zen Luzaiden, von Schack izeneko aleman aipatu bat Orriagara joan nahian. Bazterrak sutan arrapatu ta, itzuli behar izan zuen etxera. Andik urte batzutara idatzi zituen orduko gauzak eta oraindik argitaratu ez ditudan orritan badira Bordelen itzak bezain gogor-rak. An adituko zituen!!!

*Airea: "Ikusten duzu goizean"*

1/ Giristinoak, barkatu,  
Abertitzia dut artu,  
Nahi dut egiaz mintzatu  
Gure denbora nahiz pasatu;  
Leku hunian gira sortu,  
Ez dugu abandonatu,  
Beharrak guardiatzen gaitu  
Konserbatu behar baitu.

2/ Orren konserbatzekotan  
Gerabiltzazu penetan,  
Okasione orotan;  
Bainan gobernuaren baitan  
Ez gira amodiotan:  
Sartzen dira graduetan  
Huntsa gobernatzekotan,  
Seinale guti obretan.

- 1/1 Giristino = kristaua.  
1/4 nahiz pasatu = pasatu nairik.  
1/5 hunian = onean.  
2/3 orotan = danetan.  
2/6 gradu = cargo.  
2/7 huntsa = ongi, ondo.

3/ Obrarik injustuena  
Orai pratikatzen dena,  
Ezin esplika daitena;  
Konposatzen da mila kozina  
Ez dirokete kontina;  
Zonbaitek nahi luketena  
Armada bertzek mantena,  
Fornitzaliak zer pena!

4/ Penarekin bizi gira  
Beti onaren begira;  
Etsitzen asiak gira:  
Sei urte ontan gerla ari da (1)  
Astean bezain berri da.  
Bayonetak hunak dira,  
Ezpatak ala balira,  
Sanyatu beharrak dira.

3/4 konposatzen = konpontzen, maniatzen.

3/5 ez dirokete kontina = ez dezakete jarrai,  
iraun.

3/8 fornitzalia = mantenatzalia. El proveedor.

4/8 sanyatu = aldatu.

---

(1) Emen ikusten da zein urtetakoak diren kan-  
tuak. Gerlaren seigarren urtea 1838 edo 1839'an zen.

5/ Sanya balite ezpatak  
Garbi laizteke disputak,  
Liberal eta karlistak.  
Batzuek dira elgarren kastak,  
Bertziak negoziantik,  
Oro elgarren konsentak;  
Orietaik tugun presentak  
Neka bidia inozentak.

6/ Inozentaren bizia  
Esklabo errendatzia  
Bere denbora guzia.  
Enganatzalen gobernatzia  
Gure trabailu tristia;  
Auxe da ezin bertzia,  
Debalde enplegatzia  
Izerdiz irabazia!

5/6 elgarren konsentak = elkar artuak.

6/2 errendatzia (fr. rendre) = errenditzea.

6/5 trabailu = naigabe.

7/ Egin dituzte justiziak  
Ahal bezain itsusiak,  
Anitzi gusta biziak  
Batzuek anaiak bertziak kusiak  
Bi partiden nagusiak,  
Elgarren kontra guziak,  
Anitz "amigo" josiak:  
Zer patriota nahasiak!

8/ Holako gerla manera  
Ez ikusirik obe da,  
Tronperia du sobera:  
Eman tugunak paper aldera  
Sekulan ezin kobera.  
Emaiten dute kolera,  
Miserabliain gainera  
Gaizki agertu moneda.

7/4 kusi = primo.

8/3 tronperia (fr. tromper) = engaño.

8/4 paper aldera = paper trukean.

8/5 kobera = kobratu.



9/ Nor diren ez dut erraiten  
Legiak ez du emaiten  
Izenak esplika ditén.  
Ez duguya ba ikusten,  
Nunguak-nahi izan ditén,  
Gizenak flakuen jaten?  
Ori da etsenplu baten  
Zer segida deramaten.

10/ Segida horren gainian  
Mintza gaiten zuzenian  
Libertate dugunian:  
Abertitzen tut fede hunian  
Baliatzeko heinian,  
Beren azken orenian  
Sar ditén itzalgunian  
Diru metaren barnian.

- 9/5 nunguak nahi = nun-naikuak.  
10/5 heinian = neurriyan, tamañan.  
10/6 orenian = orduan.  
10/7 itzalgunian = itzalean, kerizpean.  
10/8 meta = pilla.

11/ Aisa litaike sartzia  
 Balute preferentzia  
 Konsegitzeko grazia.  
 Izanik ere mundu guzia  
 Ezin konserba bizia,  
 Ori da ezin bertzia!  
 Ez da aski diru biltzia:  
 Orok zor dugu hiltzia.

---

“*Ttipittuaren papera*”. Eskuz idatzirik dago eta ameka bertsuak dakarzki.

- 1/2 abertitzia dut artu.
- 1/3 nahut egiaz mintzatu.
- 1/5 tierra hunian gira sortu.
- 2/2 gerabiltza penetan.
- 3/3 ezin kontina daitena.
- 5/2 garbi baitezke disputak.
- 5/4 erdiak dira...
- 5/8 nekazaile inozentak.
- 6/4 enganatzailek.
- 6/6 hauche de inyustizia.
- 7/1 egintuzten yustiziak.
- 7/4 erdiak anayak bertziak kusiak.
- 7/8 ze patrio nahasiak.
- 8/6 botatzen dute kolera.
- 8/7 miseraulen gainera.
- 9/4 nunguak nahi izan ditén.
- 9/5 eztuguya ikusten.
- 9/8 segida zer deramaten.
- 11/6 hauche da ezin bertzia.

*Errekalde'ri artuak*. Memoriz egin zizkidan. Zor-

tzigarrena eskas du; etzitzaion heldu. Ttipittuaren al-  
daketak berekin ditu. Gañera beste auek:

- 3/3 esplika ezin daitena.
- 4/5 hastian bezain berri da.
- 5/2 garbi laitezke disputak.
- 5/4 batzuek elgarren kastak.
- 6/4 enganatzailen gobernatzia.
- 9/6 gizenak mehien yaten.

An-emenka artutako beste sail bat bildu nuen. Ber-  
dintsu dira gehienak.

- 1/7 beharrak gordetzen gaitu.
- 3/1 obrarik den gaistuena.
- 5/8 nekazari inozentak.
- 7/8 ze partido nahasiak.
- 9/4 nunguak nahi izanike.

## “BIHOTZA ZERAUT NIGARREZ URTZEN”

Ba nuen Luzaiden kantu onen berri. Egia edo gezurra, gazte denboran elgarrenganako atxikimendu aundia izan ondoan, ezkondu ez; eta gero, alargun gelditu-ta lenbiziko maiteari eginak izan behar dute. Bere suyeta zuen Bordelek?

“Etxeberriko kantiak” deitzen dituzte. Etxeberri, Luzaideko bezteretxea da.

Galduak bezala jotzen nituen bertsu auk, Arnegi'ko Mozuak kantatu zizkidalarik. Gehiago ere izan behar zuten, berak zionez. Komeni da jakitea.

- 1/ Xarmegarria, zure berririk  
Nihundik ez dut jakiten,  
Zureganat dudan amodiuk  
Ardura nau oroitarazten;  
Zonbat maneraz maluros nizan  
Ez duzia konsideratzen?  
Zutaz aipatzia guti aski dut,  
Bihotza zeraut nigarrez urtzen.

- 2/ Ala oren tristia izan zena  
 Nik maitatu zintudana!  
 Geroztik hunat pasatzen dixit  
 Bihotzian zombait pena.  
 Ni ote naiz munduan lehena  
 Amodiuak tronpatzen nauena?  
 Ondokuengatik gehiago sofri niro  
 Nitaz fini baladi azkena.
- 3/ Oi zer gauza lanyerosa den  
 Amodioa gaztendako!  
 Bihotz gogor hori ez ote zaizu, bada,  
 Ene alderat tendratuko?  
 Ze! ala orai kitatzen nauzia  
 Arabez obe batendako?  
 Ark ere ez ote du nik bezala  
 Izanen eguna gauaren ondoko?
- 4/ Ote da zeruan aingerurik  
 Elgar maitatzen dutenik,  
 Zureganat dudan amodiua  
 Baino fidelagokoa dutenik?  
 Ene penak finituren dira  
 Ni juanez geroz mundutik;  
 Ez dut nik beste erregretarik  
 Xarmegarria, zurea baizik.

- 
- 1/1 xarmegarria = zoragarria.  
 1/2 nihundik = ifundik.  
 1/4 ardura = sarritan, maiz.  
 1/5 maluros nizan = doakabe naizen.

- 1/8 zeraut = zait.
- 2/1 oren = ordu.
- 2/6 tronpatzen = engañatzen.
- 2/7 sofri niro = sufri nezake.
- 2/8 "Nitaz fini EZ baladi azkena", izan behar lukela iduri du. (Nerau ez banintz azkena).
- 3/1 lanyerosa = arrisku duna.
- 3/4 tendratuko = bigunduko.
- 3/5 kitatzen nauzia = uzten al nauzu.
- 3/6 arabez = segurki.
- 4/7 erregretarik = samintasunik.

## BARBERAREN KOBLAK

Preottoa bazterretxeko alaba, izan behar zuen bertsutan den izar ederra. "Barbera" berriz, gero Luzaiden mediku izan jaun bat. "Cirujano" deitzen dute elizako paperrak.

Sei bertsu beintzat izan behar zuten. Bost bakarrik bildu ditugu. Emen direnak Luzaiden artuak dira:

### 1/ Kantore berri xarmant batzu

Orai hasten naiz kantatzen,

Iñorant denik balin bada

Guziek entzun ditzaten:

Izar eder bat ba dakizue

Jinik ba dela Luzaiden,

Eztitasunez betia da eta

Guziak ditu xarmatzen;

Oray asia da tristatzen.

1/1 xarmant = zoragarri, eder.

1/6 jinik = etorririk.

1/8 xarmatzen = zoratzen.

2/ Jinko Jaunaren probidentzia  
 Ez dea bada aundia,  
 Irauzketa'ko plaza hortan  
 Holako argi noblia!  
 Argi eder horrek merezi luke  
 Ederki adoratzia:  
 Oferendatzat emakozue  
 Mirra edo izentsia,  
 Ahal duenak urria.

3/ Barber gazte bat jiten omen da  
 Españaiko aldetik  
 Artizarra horren konsolatzera  
 Erremedioz beterik.  
 Barber horrek egin ote du  
 Hoin mirakulu aundirik?  
 Erremedioak eman tu bainan  
 Deus ez omen du oberik:  
 Gaixua utzi du tristerik.

- 2/3 Irauzketa = Luzaideko etxerik zaharrena.  
 3/1 jiten = etortzen.  
 3/2 artizarra = goizeko izarra.  
 3/6 mirakulu = mirari.  
 3/8 deus = ezer.



4/ **Konseiluño bat ba nuke nik**  
Orai emaiteko zuri,  
Barber gazte horrenganik  
Baldin ez bazira eri:  
Nahi baduzu konserbatu  
Zeure argi eder ori,  
Gezurño zombait erran behauzu  
Adoratzale orori,  
Eta ez fida nehor.

5/ **Amodiotan den presuna**  
Ez da beti alegera,  
Plazer bezanbat penetan  
Pasatzen dixi denbora.  
Ni ere halaxe nihabilazu  
Galdurik neure odola,  
Mundu ontako plazer guziek  
Ez bai nirote konsola:  
Hilik ere ez dut axola.

4/1 konseiluño = conseju txiki.

4/9 nehor = iñori.

5/8 ez bai nirote = ez bai nintzakete.

Ikusi: "*Lau euskal olerki zahar*". (EGAN: 1-2, 1958; 22-26'gn. or). "Iturburuko", Yoana Cihigoye-neche'k kantatu zizkidan bezala. Orai emandakotatik diferente dira:

1/9 Orai gaxua asia da tristatzen.

4/ Konseiluño bat banuke  
orai emaiteko zuri  
Baldin barber gazte horrenganik  
ez ba zira heri:

"J.C. Arrosagaray". Bere gazte denboran anitz aldiz kantatu izan dituela, dio eskutitz batean. Seigarren bertsua etzaio heldu burura. Noizbait oroitzen bada bialduko du. Zer bait aldatzen digu:

1/4 guziek entzun *dezaten*.

3/3 *Argi eder* orren konsolatzera.

3/7 Erremedioak eman tu bainan  
Utzi du penaz beterik  
Eta gaichua tristerik.

4/ Konseiluño bat banuke nik  
Orai emaiteko zuri  
Baldin ez balin bazira  
Barber gaztia ganik eri...

5/5 Plazer bezanbat penarekin  
pasatzen baitu denbora...

5/8 ez bainiote konsola.

Errian ba dira beste itz batzuk aldatzen dituztenak ere:

2/6 Argi eder horrek merezi luke  
*oneski* ohoratzia.

4/3 Baldin barber gazte horrenganik  
ez bazira heri:

## ENE ANDREGAIARI

Mutil denboran berari gertatua du bertsulariak. Erriko nexto gazte bat, Bordel hartaz gustatia dela erranez joan da nunbait; eta aski lukela baia emaita, ezkontzeko.

Jakin du mutikoak, eta biak gomitatiak ziren eztei-egun batez asi zen bazkarikoan koplaka. Mahitik goratu ta, gorriturik atera izan behar zuen salatik nextoia.

“Gelariaren koplak” zirela aditu nion kantari zahar bati. Apez etxean egoten zen zerbitzaria ote zen? (1).

---

(1) Erriko seme frango izan dira Luzaiden apez. Gerta laike oseba apezarekin bizitzen zen nexto zombait izatea.

1/ Andere gaztia,  
Otoi, barkatu:  
Enetzat nola ote  
Zira mintzatu?  
Uroski egundaino  
Etzaitut xerkatu;  
Zeren gainian zira  
Hola deklaratu?  
Biluak urratu  
Beharrak banitu,  
Zuk ez nahiz artu...  
Zu ez bezalakorik  
Nahi dut hautatu.

2/ Abertitzen zaitut,  
Andere gaztia,  
Izariz ar dezazun  
Banitatia.  
Fortunaz izan banu  
Nik borondatia,  
Ez omen zinazteken  
Nitaz hautatia.  
Aise da, maitia,  
Kunkil izaitia  
Urgulu artzia;  
Oraino zerbait bada  
Gogoan pastia!

1/5 uroski = zorionez.

1/6 xerkatu = billatu.

1/9 biluak = illeak.

2/3 izariz = neurriz, neurrian.

2/10 kunkil = arro, buru-arro.

2/13 pastia = pasatua.

3/ Ororen burukoa  
 Alegera zaite:  
 Zu afrontatu gabe  
 Konsola naite.  
 Hola mintzo zirela  
 Aditzen badute,  
 Zure mina dudala  
 Ais'erranen dute.  
 Erreklama zaite  
 Ahal bezain fite:  
 Nork nahi zaituzte?  
 Zu bezalako filusik  
 Nik ez dut maite.

4/ Zu maite zaituna  
 Ez da ene baitan,  
 Etzaitela, ez, egon  
 Naigabetan.  
 Iduri nitzaizu  
 Sobera amodiotan;  
 Uste baduzu ere  
 Etzira feiletan.

- 3/1 ororen burukoa = guzien gañetikan.  
 3/3 zu afrontatu gabe = zureganatu gabe.  
 3/8 ais'erranen dute = aisa esango dute.  
 3/9 erreklama zaite = dei egin zazu.  
 3/10 ahal bezin fite = aal bezain laister.  
 3/12 filus = zuri-eder-faltoa, engañagarri.  
 4/6 sobera amodiotan = amodio gehiegitan.  
 4/8 etzaude feiletan; lit. feire.

Egon naiz miletan  
Bertze zombaitetan  
Nahiz aferretan;  
Bainan ez egundaino  
Zure desiretan.

5/ Desiretan egon naiz  
Errekontratzeko,  
Bizpairur arrazoinen  
Espelikatzeko.  
Zer zinuen suyeta  
Ene aipatzeko,  
Zuhaur iduriekin  
Erreformatzeko?  
Sekulan saltzeko  
Beldur baratzeko...  
Ez da fidatzeko!  
Paregabia zira  
murmuratzeko.

4, 9/13 egon naiz askotan  
beste zenbaitetan (neskatxetan)  
niaz alperrikan (edo, bañan alperrikan)  
bañan ez egundano  
zure deseotan.

5/2 errekontratzeko = zurekin topatzeko.

5, 5/11 zer zenuen motibo  
nere aipatzeko,  
zure iduripenekin  
ola nahastutzeko?

5/10 baratzeko = geratzeko.

6/ Murmuratzen dituzu  
 Iduritzen zaitzunak,  
 Horiek dira zure  
 Jendetasunak.  
 Xarmatzen bide zaitu  
 Zure edertasunak,  
 Geien konplimendiak  
 Egiten tuzunak.  
 Uroski goiz hunak  
 Pasatzen tuzunak  
 Emanik fortunak!  
 Odol hunik in liro  
 Zurekin gizonak.

7/ Gizonaren bizia  
 Andre laguntzia,  
 Konbeni dute elgar  
 Eztiki artzia.  
 Bainan batzuk ba dute  
 Mila fantesia,  
 Beren baitarik heldu  
 Zayela grazia.  
 Oro malezia!  
 Ez da abilezia  
 Urgulu artzia:  
 Hiltzeko sortua da  
 Mundu guzia.

6/5 xarmatzen bide zaitu = xoratzen omen zaitu.

6, 7/8 kunplimendu geienak  
 egiten dizkiozunak

6/12 odol hunik in liro = odol onik egin lezake.

A. Onaindía, "*Milla Euskal Olerki Eder*", 451'garren orrialdean.

Izena "*Ene Andregaiari*", emendik artu dugu. Ez hala, bertsuak. Luzaiden bezala emaiten ditugu. Auek dira A. Onaindiaren aldaketak:

1/1 Andregai gaztea, otoi, barkatu.

1/5 Egundaino etzaitut pensetan xerkatu.

1/9 biluak urretu.

2/1 Abisatzen zaitut  
Andregai gaztia.

2/10 Holako filusak  
nik ez ditut maite.

4/3 etzaitela egon, ez, naigabetan.

4/5 iduritu baitzaizu  
sobera amodiotan.

4/10 bakarrikan ez zurekin desiretan.

6/2 iduri zaizkitzunak.

6/9 Uroski goiz hunak  
Pasatzen tuzunak,  
Emanik fortunak.

Odol hunik in diro zurekin gizonak.

7/10 hiltzek sortua da  
mundu guzia.

"*Cuaderno Madarich*". Eskuz idatzia. Maria Luisa Auzqui'k egina.

2/3 izarian artziaz banitatia.

2/7 ez omen zinateken.

3/11 nork nahi zaitute?

4/10 Bertze anitzetan.

5/1 Desiretan egon niz  
zure errekontratzeko.



## MENDEKOSTE BESTÉTAN

Bordelen kanturik ezagutuenetako bat aux da. "Floria" izeneko karta-jokuan Arnegi'ko bost emaztek egindako komedia kondatzen da.

Anitzetan argitaratua izan baita, zaharretakoa bezala, Azkue'k 1901'ean zabaldua artuko dugu emen (1). Sallaberry'k bost emaztien izenak ixiltzen ditu, berek aditze-ko beldur balitz bezala (2). Bein baino gehiagotan gertatuko zen halako bat Euskalerriko plazetan!

### 1/ Mendekoste-bestetan

Aurthen Arnegiko errekan  
Istorio bat gertatu izan da,  
Kasik ezpeitirok erran:  
Bortz emaztek edan tuzte  
Amalau pinta hepetan  
Jokaturikan kartetan.

1/5 emaztek = emakumek.

1/6 hepetan = bat-batean.

1/7 "Amalau pinta arno betan", erraiten da Luzaiden.

---

(1) *Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue*. "La Música Popular Baskongada" (Bilbao, 1901). Conferencia pronunciada en el "Centro Vasco"; (pág. 11).

(2) *J. Sallaberry*. "Chants Populaires de PAYS BASQUE" (París, 1930) pág. 210.

2/ Jokoa zuten *florian*  
 Arnegin Madrilenian,  
 Atso gaixoak uste zuten  
 Zirala zeruko lorian  
 Saindu ororen erdian,  
 Beren botoilak aldian  
 Bai eta plazer handian.

3/ Batek zion besteari:  
 "Haurra ire graziari;  
 Arnoño hunek alegeratzen  
 Ditan bihotzñoa niri;  
 Ene plazerra hona luken  
 Banu zonbait ogi-poxi  
 Arno ezti hunekin".

4/ Katixa ta Katalin  
 Auzo biak elgarrekin  
 Arno edaten ari ziren  
*Koraje* handi batekin;  
 Gero ondoan bazuten  
 Gibel aldean zer egin  
 Beren fanfarriarekin.

2/1 *florian* = karta-jokua.

2/2 Madrilene = Arneguy'ko etxea.

2/7 "Edaten umor hunian" (Luz.).

3/3 Arnoño = ardotxo.

3/6 ogi-poxi = ogi puxka.

4/7 fanfarria = soñulariak, musikariak. Azkue'k  
 "fanfarroneri" bezala itzultzen du.

gero ondoren bazuten  
 atzeko aldian zer egin  
 beren musikarekin.

5/ Hirugarrenak ederki  
Tanteatzen omen daki:  
Hamarrekoak harek zituen  
Omen markatzen orori;  
Hundarrekotz nahasi zen  
Eta lurrerat erori:  
Orduan etzen egarri.

6/ Laugarren hori zer *pheza!*  
Maria zapatainesa;  
Huntsa esplikatzen zituen  
Heskuara eta frantsesa;  
Bai eta ere aisa egiten  
Bide handian *esa*:  
Horixe da haren letra.

7/ Bosgarren hori zoin ote da?  
Pentsatzeko ez da pena:  
Zerafina gaizo orrek,  
Nola ezpaituke lehena,  
"Benedika dakiola, dio,  
Mahatsari ahiena,  
Arno ekartzen duena".

5/5 Ondarrekotz nahasi zen = azkenerako nas-  
tu zan.

6/1 zer *pheza* = zer *pieza!*

6/2 zapatainesa = zapatariaren andrea.

8/ Ahuntzez jokatu eta  
Hasi ziren kolpeka.  
Kaston deitzen guarda gazte bat  
Kanpotik jinik lasterka  
Hok partitu izan zituen  
Ez uste bezain aisa  
Arrazoinik ezin pasa.

9/ Zuk ere etxekandera,  
Erran beharzu egia:  
Jolas hortan zu ote zinen  
Horien buruzagia?  
Bortz emaztek egiteko  
Horixe da komedia!  
Hurran baizen zahagia.

8/1 Ahuntzez jokatu = dana batera jokatu.

8/4 jinik = etorririk.

8/5 "Bakia ezarri zuen  
Ez uste bezain aisa" (Luzaiden).

9/7 hurran = gertu, ondoan, aldamenean.

---

*J. Sallaberry.* "Chants Populaires du Pays Basque" pág. 210 (París 1930).

1/3 Istorio bat gertatu da  
Kasik ezpeiot erran:  
Bost emaztek edan dituzte.  
Hamalaur pinta arno betan.  
Jokaturik kartetan.

2/2 Arnegiko Madrilenian.

3/1 Batak zion bertziari.

3/5 Ene plazerra hola luken.

- 4/7 Bere fanfarreriekin.
- 8/3 Kaston deitzen zen guarda gazte batek.
- 8/5 Hak partitu izan zituen.
- 9/7 Hurren baizen zahagia.

*Onaindia*. "Milla Euskal Olerki Eder" (Larrea, 1954) 449<sup>gn.</sup> or.).

- 4/1 Katrina eta Kattalin.
- 4/4 Kuraia handi batekin.
- 7/3 Garaxane gaizo horek.
- 7/5 Benedika daiola, dio.

Pundu gehienetan Sallaberry'rekin batera heldu da. An erranak onendako balio dute.

Gauza bera erran daike "Kantuz" eta "Xaramela", bi bertsu liburutan diren aldaketaz.

"*Luzaiden bildua*".—Luzaiden aldaketak baditu, memoriz egiten delarik beti gertatzen den bezala:

- 1/3 Istorio bat gertatu da  
asik ez daiteke erran.
- 2/3 Andre gaixoek uste zuten.
- 3/5 Ene plazerra hola luken. (Gizon alde bat  
kantuz ari zen lekuan artu nuen beste puntu au:  
Ene plazerra hol-hola huken.
- 6/3 Huntsa esplikatzen ditu.  
(Beste aldi batez entzuna:)  
Aisa esplikatzen ditik.
- 6/7 Hori dun ire letra.
- 7/1 Bostgarrena zoin ote da?  
Pentsatzia ez da pena.  
Xakueneko gaizo horrek...

(Au da bakoitzak bere aldera emaiten duen izena:

"*Zerafina*" (Azkue), Garaxane (MEOE). Luzaiden Arnegi'ko etxearen izena sartzen dute: Xakuenea.

- 8/3 Gaston deitzen zen guarda bat  
Kanpotik jinik lasterka,  
Bakia ezarri zuen  
Ez uste bezain aisa.

## ETXAUNDIKO KANTIAK

1/ Giristinoak adora beza  
Komeni den relikia,  
Gaistakeriak utzita  
Huntsa goberna lekia;  
Buruzagiak atzeman diro  
Bizi deneko nekia,  
Bere baitarik ez badu maite  
Familiko bakia.

2/ Behar bezala esortatzeko  
Ez dut ikasi eleka,  
Xuhurra denak ez dezala  
Okasionerik xerka;  
Bere usaya hala duyena  
Nik ez dezaket debeka:  
Erran dezaket ez dela propi  
Ama humiak kolpeka.

1/4 huntsa goberna lekia = ondo goberna lekua.

1/5 atzeman diro = arkituko du.

2/2 eleka = izketan.

2/3 xuhurra = txintxua.

2/4 okasionerik xerka = okasiorik billa.

2/5 usaya = oitura.

2/8 propi = egoki.

3/ Lege justoak manatzen gaitu  
Bat bestearen ondoko,  
Superiorra erdiek ere  
Ez dute obedituko ;  
Familietan kexatzen dira  
Elgarrengana orduko:  
Naturaleza ezaguturik  
Nehore ez dute artuko.

4/ Geruago eta gaistuago da  
Jenden intenzionia,  
Manera hortan galtzen ari da  
Gure erlijionia.  
Buruzagien falta dela  
Ba dut opinioia,  
Hek erakutsi behar bai dute  
Etxeko unionia.

5/ Zuzen bidian laguntzeko  
Balio du huntasunak;  
Familietan sekulan ez du  
Parerik esenplu onak.  
Bainan segurki ez dira berdin  
Guzien jendetasunak:  
Solasa aisa konprenitzen du  
Akusatzen den presunak.

3/5 kexatzen = kejatzen.

5/7 solasa = esana.

6/ Desafio eta maldizione  
Bere familiarekin,  
Hori kostuma gaistua dela  
Nik erranen dut garbiki;  
Giristinoak behar luke  
Gaizki eginaz urriki,  
Bizimodia kanbiatzeko  
Jaunaren beldurrarekin.

7/ Manamendien arabera  
Emaiten diren ordenak  
Ek obeditzen ez badira  
Orok baitugu obenak;  
Inumerable izanen dira  
Kondenatuko direnak  
Oro egiak balin badira  
Elizako erranak.

8/ Ordenarioz kanpo dabiliza  
Podere duten gizonak;  
Miliarka dira gizonak  
Hori ezagutzen dutenak.  
Probidentziak argi ditzala  
Inozet direnak;  
Esenplu gaisto emaile dira  
Gehienik dakitenak

6/3 kostuma = oitura.

6/6 urriki = damutu.

7/1 Manamendien arabera = aginduen era be-  
rean (conforme a...).

8/1 ordenarioz kanpo = fuera de ley (ordena-  
rio = código).

8/3 miliarka = a miles de millones.



9/ Nolako soinu halako iantza  
Goizian hala atsian;  
Halako zombait ere bizi da  
Españian hala frantzian!  
Esenplu eder guti emanik  
Jainkuaren serbitxian,  
Etsaia aisa libertitzen da  
Beti gerla den etxian

9/1 iantza = dantza.

9/2 atsian = arratsian.

9/4 Españian...

---

“Cuaderno de José María Iraburu”. Es el único que recoge entero este canto. Trae en la página 121 y respetamos íntegramente su versión. En Valcarlos quedan vestigios muy fragmentarios y más bien vagos. Coincide, en cambio, el título.

## AYUNDAMENDUKOAK

Garai guzietan badira zer esanak erritan eta bertsulariak holakotan ez dira lo egoten. Herriko kondutan kozina zikin asko ikusten ari zela, eta ayundamendukoen kontra jarri zituen Bordelek bertsu auek.

Ara zer erraiten zidan Juan Cruz Arrosagaray'ek:

“Luzaidar zahar batek erran daut jua den egunian, Bordel zena bera asi omen zen bertsu on kantatzen Luzaideko plazan, eta herriko jende guzia bildu omen zitzakon plazerrez irakiturik... eta ostatuko kozinerrak ere ba, jatekua suyan utzirik. Gero gibela jua eta jateko guzia suyak irakituz eramana. Ordian, lehenik berak irakitu plazerrez, gero suyak jatekoa in zuen...

Jende guziak barur egin omen zuen egun artan, eta alare jendek omen zioten, Bordel kantuz ikustiak balio

zuela barur egun bat eta ohono gehio re. (ha-ha!)” (Kaliforniatik, 1964’ko Maiatzean). (1)

1/ Nahi duenak aditu  
Luzaideko berria,  
Esku txarretan dabila  
Aspaldian erria;  
Lehenago beharra zen  
Finkatu larderia,  
Orai etzaio itzuliren  
Bakotxari beria.

2/ Hiruetan ogei urte  
Gutienik ba ditu,  
Herri huntako aferak  
Ez dirala garbitu;  
Solas hori nork eztu  
Miliunka aditu!  
Kozinerrak berak bezik  
Ez dira baliatu.

1/6 larderia = errespetua.

2/3 aferak = (fr. affaire; cast. asunto).

2/5 solas = kontu, esana.

2/7 bezik = baizik.

---

(1) Ez ditut bertsu denak bildu ahal izan. Emen daudenak ere an-emenka bilduak dira. Segida guzia, amaika bertsu izan behar dute. Bertsu paperrik ez dut arrapatu.

3/ Herri huntan ba ditugu  
Ofiziale hunak,  
Larrurik zilatu gabe  
Sangaratzen dutenak;  
Lanyerosak ere dira  
Holako gizonak,  
Urrikarri ditut orien  
Beharretan direnak.

4/ Manatu dretxuak bildu,  
Beti aintzina galde,  
Egundainoko eman guziak  
Ez emanaren balde;  
Arteko mensajeruak  
Ez dabilta debalde,  
Legearen fidel dira  
Bakotxa bere alde.

3/4 sangaratzen = odol-hustutzen.

3/5 lanyerosak = arriskudunak.

4/1 manatu dretxuak bildu = agindutako petxak artu.

4/2 beti aintzina galde = aurrera ere aske.

4/4 ez emanaren balde = ez emanaren alde.

5/ Herri huni errekontru  
Onak eman balako,  
Errespetu behar zuen  
Orai ez bezalako;  
Katoliko eskuan  
Ez da anitz holako,  
Zonbat-nahi bilduagatik  
Beti pundia flako.

6/ Orai zuri mintzo naiz,  
Suyetan nagusia,  
Etzinuela gupida  
Egin ahal guzia;  
Baldin ez bada ikasten  
Kunpliki malezia,  
Nolanahi honditzen da  
Gaizki irabazia.

5/1 errekontru onak eman balio = suerte onak  
jo balio.

5/6 anitz = asko.

5/8 pundia = puntua.

6/2 suyetan nagusia = istilluen nausia.

6/3 gupida = kupira.

6/7 honditzen da = ondatzen da.

- 7/ Nik enuke sartu nahi  
 Afer'orietan barna,  
 Etzazula gaizki artu  
 Huntsa nahiz errana;  
 Errezibitzen zinuela  
 Edozeinek emana,  
 Aski aintzineko huna  
 Zinuen xikana.
- 8/ Jakina jarri zaizula  
 Familia penatzen,  
 Nola gobernutu zira  
 Zeure ar-emanetan?  
 Solas ori entzuna da  
 Guztiz gehienetan,  
 Partzuerrak ba tuzula  
 Ixilik daudenetan.
- 9/ Herri guzia jarri zauku  
 Aldi huntan minbera,  
 Buruzagiek dutela egin  
 Zarkeria sobera;  
 Punitzia merezi ute  
 Obraren arabera,  
 Justiziaik balin bada  
 Dezatela espera.

7/4 huntsa nahiz = on-ustean.

7, 7/8 Naiko gidari ona zenuen tranpa.

8/7 partzuer = socio.

9/5 punitzia = kastigatzia.

*Errekalde.* — Juan Caminondo, Errekaldeko naguse zenak sei bertsu kantatzen zituen. Bere bertsutatik gidatu gera aldi ontan. Alare aldaketa txiki batzuk sartu ditugu, bestetatik artuta:

3/1 *matu* dretxuak, esaten zuen. (*manatu*, izan behar du).

3/5 arteko ero mentsak (mensajeruak).

8/5 solas hori kurritu da gutiez geyenetan.

8/7 baituzula (badituzula).

Seigarren bertsea azkena bezala ematen zuen.

6/2 suyetan buria.

6/7 unditzen da.

(Errekaldek emanak, 1, 2; 4, 5; 6 eta 8'garren bertsuak dira).

*Aldats.* — Pedro Luro, Aldatseko nagusiak, bost bertsu dazki. Auetako bat Errekaldenetan etzena: zazpigarrena.

2/2 gutiena ba ditu.

2/5 solas hori zoinek ez du.

4/1 galdegin dretxuak bildu.

4/3 egundainiko guziak.

4/7 legeko fidelak tugu. Aldatsek seigarrena lenbiziko ematen du.

6/1 Orai zuri nuzu mintzo.

6/5 baldin ez bada izaiten.

Esan bezela zazpigarrena ez dut Aldatsi baizik aditu.

8/1 jakina da jarri zaizula.

*Juan Cruz Arrosagaray.* — Lau bertsu bialdu dituenetik, bi berriak dira: irugarrena eta azkenekoa.

Ba dira beste baten itzak ere: behar bada 7'gn eta 8'garrenaren artekoak.

.....

“Zuhaurek diozun gisan  
Etzinuen merexi;  
Malurosa, nola etzira  
Lehenago berexi?”.

Gañera puntu frango:

1/3 “esku txarretan dabilate  
Aspaldian herria  
Finkatu nahi zuten  
Bortitz larderia  
Hobe eman balezate  
Bakotxari beria”.

Bigarreanean dio:

“Hiru ogoi urte beden  
Gutienaz ba ditu  
Herri huntako bokatal  
ez direla garbitu, (colada)  
Nork ez du solas ori  
Milihunka aditu...”.

Azkenekotz:

6/1 Orai zuri mintzo nuzu.  
6/3 Etzinuela, ez, gupida.  
8/5 solas ori badabila.



## BAYGORRIKO HEGALIAN

1/ Baygorriko hegalian,  
Ez urrun Donibanetik,  
Jaun-andere biga dira ageri  
Bertzen gainetik.  
Aspaldian bortxatuak  
Amodiuaren aldetik,  
Anderiak galduik baitu  
Bi lumaño hegalpetik.

2/ Lehen lumaren galtziak  
Baditu amabi urte;  
Bigarrena berriz aurten  
Biek penarazi dute.  
Jaun-andere orier buruz  
Abisa eman nahi nuke,  
Elgar esposa dezaten  
Ideya hunik badute.

1/2 Donibanetik = Donibane Garazi (San Juan  
Pie de Puerto).

1/3 Jaun-andere biga = jaun-andre bi.

3/ Ideya hunak ar bitzate  
Bakotzak bere hunetan,  
Egin hutsak errepara  
Bizi diren egunetan;  
Oriek dabilzan bezala  
Guti da oraiko eskualdunetan;  
Ohore guti orotan  
Bere gazte lagunetan.

4/ Gaztek hala zaharrek  
Ez holakorik ohora;  
Eskandalak daramate or  
Aspaldiko denbora.  
Animarik ba dutela  
Etzaie, ez, gogora,  
Oriek dabilzan bezala  
Baita animalen moda.

5/ Animalek hilez geroz  
Ez dute deusen beldurrik:  
Orien pare ez daike par  
Giristino zuhurrik.  
Nola biziak ez baitu  
Memento baten segurrik,  
Hobe dugu kanbiatzia  
Ez izateko malurrik.

5/8 ez izateko malurrik = ez izateko okerrik.

6/ Jauna! zuk ar bazineza  
Kanbiatzeko xedia,  
Galdu duenak egin diro  
Laster erremedia:  
Zuri emanak baititu  
Gorputza eta fedia,  
Zureganikan yalgiak  
Alaba eta semia.

7/ Arrazoinekin zu baizik  
Ez du bertzerik goguan,  
Egun oroz or dabila  
Beti zure onduan:  
Ez bazira merkatuan,  
Handik etxeatekuan  
Sartzen da harri-ziluan,  
Zu gorderik zauden lekuan.

8/ Jaun larru zuria sendi  
Delarik harpetik,  
Andere bilo horia  
Bere lagunen artetik  
Gibelerat gelditzen da,  
Errori dela astotik;  
Fida baita hark, xut-xutik,  
Begira minartze gaixtotik.

6/2 xedia = asmoa.

6/3 egin diro = egingo du.

6/7 yalgiak = ekar-araziak.

8/5 gibelerat = atzera.

8, 7/8 fiatzen baita ark, xut-xutik,  
gordeko duala miñartze gaixtotik

9/ **Hola minartu izan du**  
**Bietan erori eta:**  
**Holako irriskuan**  
**Gutiago ezin gerta...**  
**Goraki ukatu zion**  
**Lehenbiziko paketa:**  
**Bigarrena ez baitziron uka,**  
**Bilatu dio gazaita.**

10/ **Oraiko gazaita ere**  
**Ez du aisa xerkatu;**  
**Haurraren atxikitzeko**  
**Anaya zuen galdatu.**  
**Zorigaitzez, tenoreko**  
**Hari zapeta zilatu,**  
**Auzoko batek jasan du,**  
**Hori ez da segetetu.**

- 9/8 gazaita = aita-pontekoa.  
10/2 xerkatu = billatu.  
10/3 atxikitzeko = jasotzeko (bataiatzean).  
10/5 tenoreko = garai onez.  
10/7 jasan = jaso.

---

Gizon bat ezagutu dut bakarrik, Luzaidean, kantu au zakina. Bere eskuz idatziazi nion, eta, itzez itz, argitaratzen dut. Suyeta ez da polita; bana garbitan garbi emanak dira bertsuak.

## “ENE IZPIRITUAN BA ZEN ZENBAIT BERTSU...”

“Ene izpirituan bazen zenbait bertsu”, Oxalde aundiaren izenean ekartzen dute euskalerriko kantu-liburuek. Nik ere, harena bezala jotzen nuen beti; bainan, Luzaiden ez dute barkatzen zaharrek...

Orai baino len erran izan dugu (1). Batzutan gertatzen dira halako gauzak; eta batzere bertsulari aundien artean. Etchahun gogora ekarriz, Haristchelar jaunak esaten zuena: “ainbertzetanoko aipamena izan bai zuen Etchahunek bere alderdian, anitz dira bere izenarekin erritan dabilzan kantuak” (2). Behar bada, emen gertatu zena. Goazen geldi geldi.

“Ene izpirituan” ekartzen duten kantu liburutan ba dira iturri bat baino gehiago:

---

(1) J. M. Satrústegui. “Anotaciones a la obra literaria de Bordel”. BAP. 1962, 3.º, p. 241 y ss.

(2) Haristchelar Jean. “La Chanson “Bortian Ahüzki”, et son auteur inconnu. “Gure Herria”, 1962, 2-3; p. 134.

1) Zazpi bertsu bakarrik ekartzen dituztenak. Itzez itz artuak dira denak, eta utsak ere ez dituzte aldatzen. Erraite baterako, zortzigarren bertsuari (auendako zazpigarrena):

“Eriotzeko orena  
ez ahantz *geroztik*  
segurragorik ez da  
sortzeraz *geroztik*”.

Emen sartzen dira “Kantuz”, “Milla Euskal Olerki Eder” eta bertze frango (3). Bigarren edo irugarren eskuko iturria izan zutela erran beharrik ez da.

2) Bayonan argitaratu, Oxalden denborako paperrak ere ekartzen dute. Orain jakin behar ginuke nork eta nola argitaratuak izan ziren; eta errotik jakin ere. Gerta laike bertsulariak berak bilduak ez izatea; edo berarekin kondatu gabe ateratzea.

Ona zer dion Oxobi’k, bere erritar Oxalderen bertsu paperrak direla-ta:

“Ordukotzat norbeit ba othe zabilan  
Oxalderen kantuak galtzerat ez utzi  
nahiz, bilduma batean ezarri beha-

---

(3) Ikusi: “KANTUZ” 65’gn. orr.: “Milla Euskal Olerki Eder” 507’ganean.

rrez? Duela berrogeibat urte (1949'ko lana du Oxobi'k) Baionan kalonje hila den Adema neurthizlari famatua eza?

...elgarren berri bazakitela biek dudarik ez da. Denboran zenbait partida badutela buruz buru eginik nor edo nork finkatzen balauku, harritzerik ez ginuke.

Dena den, huna zer dion aspaldian Bidarrin kokaturik den Fermin harotzak:

Goiz guzietako gophor esnea husturik, Seroraeneko edo Sastriaeneko supazterrean bazagon Oxalde chaharra, be-thi bere kantueri bat, biga, hiru, lau, phunduak erhietan kondatzen zituela...

Jaun bikarioa jiten zakon egun gehienez ikhustera eta, alegia deus ez, kantuen ikhastera.

Ordu hetan, Bidarrin ibilki zen Domingo Larresoro, egun eskale, bihar langile eta berdin haurrer katichima (erakusle) irakasle, ahal bezala bizi zen gizon bat.

Domingo Larresoro estimatzen zuen

Jaun bikarioak. Eta hunek egun batez Baionan imprimarazi zituen Oxalderen kantuak eta Domingori kopiak eman, kopia horiek saldurik, zombait sos egin zezan.

Bikarioaren jokia biziki gaitzitu zitzaikon Oxalderi (4).

Goazen orai Luzaideko solasetara. Diotenez, aste-astetik izen aldatuarekin argitaratuak dira zombait bertsu. Beste anitzen ordeztan, Kaliforniatik bialtzen dazkiaten itzak aipatuko ditut. Bordelen familiko baten itzak dira: "...lehenik bilatu Juan Iroz'en adreza eta gero iskiatu dakot... Erraiten daut bazuela liburu bat (cuaderno?) dena kopiatia Bordelen kantuez eta Pelo Barcelona zenai prestatu zakola eta gehio ez duela ikusi. Gero galdegin dakot Barcelona zenain alabari ensea dain atzemaitera eta oraino ez omen du halako libururik ikusi".

"Bertzalde erraiten daut Iroz'ek Bayonako inprimerian baditazkela Bordelen kantiak eta zombait Oxalde'ren izenian ezarriak".

"Punto onek oroitarazten nu lehen zuri erran naizunaz (Ene izpirituan bazen zen-

---

(4) Oxobi. "OXALDE" (1949). Euskaltzaleen Bil-tzarrak ager erazia. 8'gn orrian.



bait bertsu). Ene opinionia zen (...) Bordelena zela; orai ez dut dudatzen" (5). Eta ondarrerekoz erraiten du:

"...baliteke haren kantu zenbait etare Frantzi aldeko herri horietan nunbait, asi Arnegy, Ezterenzubi... eta Aldude, Banka, Baygorri; zeren Luzaidek, ba jendakiaz, ba mintza moduz beti kurutzamendu aundia izan du Frantziko aldiari, eta agian atzemanean dituzu nunbait Bordelen original kantu kopia zenbait".

Lauetan ogei urte aspaldi artan eginak zituena emazte batek zionez, gazte zela, josten ikastera joaten zelarik egiten zuen kantu hori, eta ordukoz ateratzen asia zen Oxalde'ren solasa. Ezterenzubi'ko alaba da berez. Eta, zinez, erran zidan gero:

Kantuak berak ez balu erran Bordelena zela? Ona azken bertsuak.

Sortzez eta bataioz  
Ni naiz luzaidarra  
Orok dakitena  
Bordel xaharra;  
Oraino bizi bainiz  
Ez dut solas txarra  
Gorputzez erbaildu  
Ta kunkurturik bizkarra,

---

(5) J. Cruz Arrosagarai. 1964'ko udaberrian egin-dako eskutitza.

Galdurik indarra  
Eztitu sukarra  
Biotza ez azkarra  
Ez ola bearra:  
Aise pasaturen dut  
Nere bizi ondarra (6).

Luzaiden ez dut arrapatu ahal izan bertsu au zakinik; bainan, berdin segur ziren Bordelena bezela kantatzean.

Dassance, adiskide onak, aditzera eman zidan bertsulariak elgarren arteko artu-emanak izaten dituztela. Adibidez, batek entzundako bertsu on bat, uste ez duela gogoan artzen du, eta bertze aldi batez berea bezala ateratzen...

Bere ustez, ez baten dako eta ez bertzearen; dudako ein hortan uztea izango litzake oberena.

Egi aundia da Dassance jaunak diona: elgarren kutsu aundiko bertsuak ba dira kantaritan. Ona emen Oxalde'k Sara'n emandako koplak bat:

---

(6) Ondarrola'n Zestau'ko etxekandere zaharrak errana.

Ikusi: "Anotaciones a la obra literaria de Bordel a través del testimonio popular". BAP 1962, 3.º, p. 241 y ss.

Oxalde, sortuz geroz,  
Da bidarraitarra,  
Hanitzek dakitena,  
Guarda zaharra;  
Oraino bizi baita,  
Ez du solas tcharra,  
Indarrez ahul eta  
Gorphutzez meharra,  
Konkortu bizkarra  
Eztitu sukarra,  
Galdurik indarra,  
Ez hala beharra,  
Deskantsuan derama  
Bizi ondarra (7).

Nork norengandik artua? Behar bada geroak argituko du. Nik bizpairu oar egin nahi ditut bakarrik, zahar gazten arteko parabola huntaz:

1) Oxobik dionez, milla zortzi ehun eta hiruetan hogoi ta hemeretzi agertu ziren kantu hauk Baionako Ch. Loustau jaunaren moldetegitik. Erran nahi da, Bordel hil zen urtean.

2) Sara'n Oxalde'k emandako koplaren

---

(7) Oxobi. "Oxalde" 19'gn orrian. (Euskaltzalen Biltzarrak ager-erazia (1949).

anaia, Bordelen izenean egiten zen ordukotz, “zahar gazten arteko” kantuan (etzuen beintzat hil ondoan sartuko).

3) Oxalde 1814'garren urtean etorri zen mundura; Bordel, 1792'an, ogeitabi urte lenago. Suyetak galdeiten du au erraitea.

4) Bordel'ek 87 urte zituen hiltzean: ots, kantu au argitaratu zuten urtean. Oxaldek 65, eta beste emezortzi gelditzen zitzazkon geroko. 1897'an pausatu zen Oxalde.

Nola nahi dela, dudako hein hortan utz dezagun gaurkotz solasa, Uztaritz'eko adiskide jakintsuak adierazi bezala. Zirt edo zart egin beza geroak.

Izena: “Ene izpirituan bazen zenbait bertsu”, deitzen dute Luzaiden. Lenbiziko berttua bezala.

Oxobi'k Baionako kopia ekartzen du eta, “Zahar gazten arteko parabola”, emaiten dako. Itz auekin hasten da bigarren berttua.

“Gaztetasuna eta zahartasuna” izendatzen dute “KANTUZ”, “Milla euskal olerki eder”, eta beste anitzak.

1/ Ene izpirituan  
Bazen zenbait bertsu,  
Oraino den guzia  
Etzeraut hustu;  
Zertaz dutan solasa  
Emazue kasu,  
Espelikaturen baidut  
Ahal bezain justu:  
Zahar bainan prestu,  
Odola zaut hoztu,  
Biotza're lastu,  
Gorputza berastu;  
Oraino gazte banitz  
Banuke gustu.

2/ Zahar gazten arteko  
Hau da parabola,  
—Zuzen esplikatzeko  
Ainbat gogor da—:  
Gaztia adin batez  
Ez ditake molda,  
Gorputza sendo eta  
Azkar du odola.  
Zaharra ez da hola:  
Iragan denbora  
Etortzen gogora  
Et'ezin konsola,  
Nekez bihurtzen baita  
Zahar arbola.

1/4 etzeraut = etzait.

1/5 solasa = itz-bidea.

3/ Egunak badoatzi  
 Egunen ondotik,  
 Ez dira elgar iduri  
 Juaiten hargatik:  
 Atzo iruzkia zen  
 Dirdiran zerutik,  
 Egun oibelak ialgi  
 Itsaso aldetik;  
 Euria ondotik  
 Asi da gogotik  
 Odeien barnetik;  
 Hortako badakit  
 Erituko naizela  
 Bustiz geroztik.

4/ Uda lehen arrosa  
 Neguan arraro,  
 Osto bano arantze  
 Aise gehiago;  
 Denez ohoratua  
 Primaderan dago,  
 Izotza jinez geroz  
 Loriak akabo;  
 Handik goiti gero  
 Ez du gehiago  
 Zeren ez den bero,  
 Hortaz segur nago...  
 Hori bezala gira  
 Zaharrak oro.

3/3 elgar iduri = elkarren antzekoak.

3/7 egun oibelak ialgi = gaur trumoi-lañoak sortu.

4/7 uda-lehen arrosa = Udaberri arrosa.

4/9 andik goiti = andik aurrera.

5/ Huna gaztetasuna  
Zoin den loriosa!  
Horri konparatzen dut  
Nere arrosa:  
Usain goxo ezti bat  
Kolorez airosa,  
Bere arropa ere  
Anitz baliosa.  
Zahar odol otza  
Nundik ez lotsa?  
Flako du biotza,  
Baitaki bai huntsa  
Lur barnean duela  
Laster gorputza.

6/ Aspaldi du naizela  
Etorri mundura,  
Geroztik pasatu da  
Anitz denbora;  
Atsegin batendako  
Frango arrangura.  
Miseria kantatuz  
Bizi naiz ardura.  
Geroko mentura  
Nik banu segurra,  
Egin nio hura  
Anitzen gustura:  
Zaharren gaztetzeko  
Baginu moda.

5/10 lotsa = bildurtu.

6/8 ardura = maiz, sarritan.

6/9 geroko mentura = etorkizuna.

6/11 egin nio = egingo nuke.

7/ Zahar giren guziak  
Gaztetzen bagina,  
Anitzentzat munduan  
Zer atsegina!  
Horrek senda lezake  
Gure biotz-mina,  
Gibelerat itzuliz  
Pasatu adina.  
Gazte larru fina  
Kolorez arina,  
Ongi esamina,  
Salba zak arima,  
Ararteko harturik  
Ama Birjina.

8/ Zahar bezanbat gazte  
Badua mundutik,  
Naiz zaharrak oro  
Doatzin hargatik.  
Heriotzeko orena  
Ez ahantz burutik,  
Segurragorik ez da  
Sortzeaz geroztik.  
Juaitian hemendik  
Gizonak ez daki  
Zer duen ondotik  
Bekatuen gatik,  
Barkatzen ez badauzku  
Jaunak zerutik.

7/13 ararteko = bitarteko.

8/6 ahantz = aztu.



9/ Urgulutik asi zen  
Lehen bekatua,  
Luziferrek emanik  
Bere zimendua,  
Asaldatu bai zuen  
Lehenik zerua  
Bai eta piztarazi  
Infernuko sua;  
Suge armatua  
Lehertu burua  
Jin denian ordua;  
Maria Saindua  
Zure medioz dugu  
Salbamendua.

10/ Etzaitut imitatu,  
Ama, orai artian,  
Orai egiten zaitut  
Oroz batian.  
Jesus, Maria, Joseph,  
Hitz hok aipatzian,  
Bake gozo bat bada  
Ene bihotzian.  
Azken orenian  
Jaunak jujatzian,  
Jar zazkit aldian  
Hil nadin bakian;  
Zeuretzat ar nezazu  
Azken hatsian.

10/14 hatsian = amasian.

11/ Sortzez eta bataioz  
Ni naiz luzaidarra,  
Orok dakitena  
Bordel xaharra;  
Oraino bizi bainiz  
Ez dut solas txarra:  
Gorputzez erbaildu ta  
Kunkurtu bizkarra,  
Galdurik indarra,  
Eztitu sukarra,  
Bihotza ez azkarra,  
Ez hala beharra:  
Aisa pasaturen dut  
Nere bizi ondarra.

11/6 ez dut solas txarra = ez da gaizki esana.

---

Ikusi: *Oxobi*: "Oxalde" (Bayona, 1949) Euskaltza-  
leen Biltzarrak ager erazia; 31'gn. orrian.

- 1/2 zonbait pentsu.
- 1/4 etzerait hustu.
- 1/5 Othoi, egizazue zertaz diren kasu.
- 1/7 esplikatuko ditut.
- 2/3 Chuchen esplikatzia...
- 2/9 Zaharra ez hola.
- 2/12 Et'ezin konsola.
- 3/3 Ez dira denak bardin.
- 3/7 Egun goibelak jalgi.
- 3/11 Hedoiien barnetik.
- 4/3 Hosto baino arantze du gehiago.
- 4/8 loreak akabo.
- 5/10 Nundik ez *da* lotsa?
- 5/12 Baitaki hain huntsa.

- 6/2 Kreatu mundura.
- 6/6 Frango arrangura.
- 6/11 egin nio hura.
- 6/13 zaharrek gaztetzeko.
- 8/3 nahiz zaharrak oro.
- 8/6 ez ahantz burutik.
- 8/8 sortzeaz geroztik.
- 8/10 gizonak etzakik.
- 9/3 Luziferrek emanik *du* zimendua.
- 9/9 Suge armatua.  
Maria Saindua.

B A P, 1962. "Anotaciones a la obra literaria de Bordel..." (c. 3.º p. 241). Ez du aldaketa aundirik ekartzen.

- 4/1 loria akabo.
- 4/13 Hura bezala gira.
- 6/1 Aspaldi du naizela.
- 7/9 *Zahar* larru fina (uts eginik dakar).
- 8/9 Gizonak ez daki  
jiaitian emendik (lekuz aldaturik).
- 9/7 piztarazi.
- 10/10 Jauna jujatzian (Jaunak...).
- 11/9 Kunkurturik bizkarra (8'garren).

vMilla Euskal Olerki Eder" pág. 507: "Kantuz", 65, eta beste; Zazpi bertsu ekartzen dituzte: 1, 2, 3 eta 4'garrena; 5, 6 eta gero 8'gna.

- 1/7 esplikatuko bai-tut.
- 1/9 Zahar bezain prestu.
- 2/3 Zuzen esplikatzia hein bat gogor da.
- 3/5 Atzo iguzkiaren  
Distira zerutik  
Egun hobela jalgi  
Itsaso aldetik.

- 4/3 Osto baino arantz  
Aise geiago.
- 5/10 Nondik ez *da* lotsa?
- 6/1 Aspjaldi dut naizela.
- 6/5 Atsegin batendako  
Frango arrangura.
- 8/1 Zahar bezenbat gazte.
- 8/3 Nahiz zaharragoak  
goazin hargatik...
- 8/5 Eriotzek'orena  
Ez ahantz *geroztik*  
Seguragorik ez da  
Sortzeraz geroztik.
- 8/9 Joaitean hemendik  
Gizonak etzakik  
Zer dagon ondolik...

J. C. Arrosagaray. (California, 1964). Zenbait pun-  
du emendik artu ditut. Alare ba ditu aldaketak:

- 3/7 Egungo oibelak  
itsaso aldetik.
- 5/3 Hortan konparatzen du...
- 5/7 Bere gorputza ere  
Hain du baliosa
- 5/12 Badakigu ontsa.
- 8/3 Bainan zaharrak oro...
- 8/10 Presunak ezdiakik.
- 9/4 luzimendua.
- 9/5 Deskaldarazi zuen  
Lehenik zerua  
Bai eta pitzarazi.

*Cuaderno "Madarich"*. — Maria Luisa Auzqui'k  
gazte denboran bere eskuz idatzia. Kantu onen zortzi  
bertsu ekartzen ditu. 1, 2, 3, 4; gero 6'garrena eta  
8'garrena. 7 eta 9'garrena. Ona puntu berezienak:

- 1/3 esplikaturen ditut.

- 1/7 Othoi, eginen duzie  
Zertaz diren kasu.
- 1/12 Bihotza laztu  
Gazte banintz oraino  
Banuke gustu.
- 2/3 Xuxen esplikatzeko  
Anitz gogor da.
- 2/6 Ez daiteke molda.  
2/10 eta.
- 2/11 elgarren artean aldatuak.
- 2/13 Neke da bihurtzeko  
Zahar arbola.
- 3/3 Ez dira elgar iduri  
Yuaiten oi hatik.
- 3/7 Oibelak yin dira  
Itsaso aldetik.
- 3/10 Hari du gogotik  
Oibelen barnetik...
- 4/3 Osto baino arantze  
Badu gehiago.
- 4/5 Hura ohoratua...
- 4/7 Izotzak asiz geroz  
Loria akabo.
- 4/13 Hura bezala gira...  
6/2 kreatu mundura.
- 6/5 Atsegin batendako zenbat arrangural
- 6/7 Miseria kontatuz...
- 6/11 Eginiro hura.
- 7/1 Zaharren gaztetzeko  
Baginu moda.
- 7/11 Ongi etsamina  
Salbatzeko arima.
- 8/5 Heriotzeko orena  
Ez utzi burutik.
- 8/8 Sortuz geroztik

- 8/9 Gizonak ez daki  
Yuaitian emendik  
Zer duen burutik.
- 9/9 Suge armatua  
Birjina saindua  
Lehertu burua  
Yin zenian hura;  
Haren medioz dugu  
Salbamendua.

“Zestau”. — Ondarrola'n bazter etxe bat da. Etxekandere zaharra oroitzen zen Ezterenzubi'n ikasi kantuez, naiz lauetan ogei urteak aspaldi bazterrerat utziak izan. Eta gazte denboran zen arien ikasteal Berari zor diogu amaika'garren berttua:

“Sortzez eta bataioz  
Ni naiz luzaidarra...”

Zonbait puntu nahasiak dira. Dena dela, emen emango ditugu larrienak: (zazpi bertsu kantatu zizkidan. 1963'an bilduak).

- 1/3 Halere, den guzia  
Etzerait hustu.
- 1/5 esplikatuko ditut:  
Othoi erradazu  
Zertaz diren kasu.
- 1/11 Bihotza beraztu  
Gorputza re hoztu.
- 2/3 Zuzen esplikatzia  
Anitz gogor da.
- 2/5 Gaztia ez daiteke  
Adin batian molda.
- 2/13 (zaharren gaztetzeko  
yin baladi moda.) 6'gn. berttua.
- 7/3 Oi, munduan anitzentzat  
Zer atsegina!
- 7/9 Zahar larru fina.
- 8/3 Nahiz zaharrak oro  
Yuaiten diren argatik.

8/9 Yuaite(a)n emendik  
Gizona ez dakik  
Zer dukan ondotik  
Bekatuaingatik.

6'garrena osorik emanen dugu:

Urgulutik asi zen  
Lehen bekatua  
Luziferrek emanik  
Du zimendua  
Asaldarazi zuen  
Lehenik zerua  
Gero pitzarazi  
ifernuko sua  
Suge armatua  
Maria Sainduak  
Lehertu burua  
Yin zenian ordua  
Haren medioz dugu  
Salbamendua.

(Bertsu au beste aldera emaitan, Arrosagaray'ena  
nuen begien aurrean. Ala ere ez litake gaizki.)

R. M. de Azkue: "Cancionero Popular Vasco), nú-  
mero 686: Bigarrena bakarrik dakar, eta aldaketa  
auek ditu:

2/4 Anitz gogor da.

2/5-6 Gaztea eztitake adin batez molda.

2/11 Heldu zait gogora.

2/14 Zahartu arbola.

## “LUZAIDEN INDEMNIZACIONAREN GAINIAN”

Au da Bordel'ek kantu oni eman zion izena. Bayonako limiten erabakiak (1), 1856'ko abenduaren 2'an artu ziren. Lenbiziko bertsuaren esaten danez —“*desira ginuena izan dugu aurten*”—, urte ortakoak dira bertsuak ere (2).

Amar bertsu dira denak eta Iruñen argitaratuak izan ziren egillea bera bizi zela (3). Errian gutxik dazkite. Iruñeko bertsu paperetik ditugu.

---

(1) Bayona'ko biltzarre aiek erdaraz bi izen dituzte: “Convenio de Bayona” edo “Tratado de Límites”. Aspaldiko komedia izaten zen mugena, Luzaiden. Lan ona egin zen orduan.

(2) Juan Cruz Arrosagaray'ek uste du 1861'ean egin zituela; “Limitenak” baino iru urte lenago.

(3) “Pamplona”: Imp. de S. Bandres. —1868”, esaten dute bertsu paperak.



1/ Publikatzera nua  
Berri noble baten,  
Desira ginuena  
Izan dugu aurten;  
Miletarikan batek  
etzuen sinisten;  
Ortakotz asia niz  
nola den erraiten,  
Adiskide fidelek  
plazer ar dezaten.

2/ *Real decreto* batek  
Idekirik bortak,  
Goratu ginituen  
Leheneko notak:  
Etzutela balio  
Oray dokumentak,  
Konsulta egin zaikun  
Gure abokatak,  
Ezin garbi daiztela  
Holako bokatak.

2/10 botaka = lixiba.

3/ Lan horren garbitzeko  
Denbora behar du,  
Luzaturikan ere  
Ezta gaizki heldu:  
Madrilen eztuenak  
Arrazoina galdu,  
Ohore publiko bat  
Merexi ahal du;  
Bi erresuma otan  
Errespetu badu.

4/ Gure superiora  
Zenbait laguneki  
Sekulan eztaiteke  
Trabaila obeki;  
Gizonak gobernatzen  
Badira fidelki,  
Zer egin dezaketen  
Nehork ere eztaki;  
Mihia behar luke  
Ibili eztiki.

3/9 erresuma = erreinu.

4/9 mihiak = mingañoak.

5/ Nor den ahal dakite  
Luzaiden nagusi!!  
Anitz haren pareko  
Amak eztu azi.  
Gure borandatia  
Konsidera zazi:  
Jaunak ezpalezako  
Hiltzia ofrezi,  
Oraino behar luke  
Mila urtez bizi (4).

6/ Gure adiskidiak  
Oraino badira,  
Baliatu zazkigu,  
Anitz konten gira;  
Solasak entzun eta  
Dudatzen badira,  
Aski da egotia  
Obrari begira;  
Gizonik aundienak  
Okupatu dira.

6/5 solasak = esanak.

---

(4) "Etxexuri" zen Luzaiden alkate. Indar aundia zuen garai artan eta baliazi zuen bere erriaren alde.

7/ **Konseju Estaduko**  
**Gorputz ain sabanta,**  
**Europa guzitikan**  
**Sinetsia baita,**  
**Errebokatu zuten**  
**Bertzen indireta,**  
**Ikusi zutenian**  
**Gure dokumenta;**  
**Ortatik heldu zaigu**  
**Behingo errenta.**

8/ **Bazela kontrario**  
**Konde eta noble,**  
**Entzutia hera-re**  
**Etzen admirable;**  
**Beti norbait izan da**  
**Kuraya emailc,**  
**Arrazoina galtzia**  
**Etzela posible;**  
**Gure konbentzitzeko**  
**Eztira kapable.**

7/2 sabanta = jakintsua.

7/6 indireta = bordesalekeria.

8/6 kuraya = coraje.

9/ **Konseju Estadoko**  
**Obra eta fama,**  
**Seietan pasatu da**  
**Gure erreklama,**  
**Azkeneko segida**  
**Garbiki derama;**  
**Antik ateratzen da**  
**Luzaideko ama,**  
**Guzien gidaria**  
**Isabel Madama (5).**

10/ **Atsegin osua du**  
**Zenbaiten biotzak,**  
**Garbitu direnian**  
**Pizuko balantzak;**  
**Goberniak emanik**  
**Bere ordenantzak,**  
**Oray segur direla**  
**Gure esperantzak;**  
**Eztakigu nola egin**  
**Ayen alabantzak.**

---

(5) Isabel bigarrenaren koinata zen Josefa Fernanda de Borbón y Borbón, Luzaiden haurra izan zuena. Frantzian bizi zen, odolari dagokion ezkontza egin nahi izan etzuelakotz; eta Etxexurik lagundurik, Luzaidera etorri zen haur ukaiteko bezperan. Ama-

ren gogo guzia ori omen zen: bere erreinuan emaittea.

Luzaideko eliz-paperetan dago: 1849, maiatzaren 29'an.

Ikusi: J. M. Satrústegui. "Dos autógrafos ilustres en la historia de Valcarlos". (BAP. 1956; c. 3.º página 355).

## ALDUDEKO KANTIAK

(1864)

Aldude'n Bentaingo alaba zen kantu aue-  
tan ateratzen dena. Erria eta sort etxea utzi-  
rik, Ameriketara joan behartu zitzakon az-  
kenean.

1/ Kantatzera niazu  
Goguak emanik,  
Menturaz hobe nuke  
Ixilik egonik;  
Bainan ez naike egon  
Oraikuan nehondik,  
Suyetak heldu zauzkit  
Bat bestia in ondotik.

2/ Mila zortzi ehun eta  
Iru ogei eta  
Iru edo laurian  
Gertatu suyeta;  
Oraino ez laiteke  
Anitz manifesta  
Holakorik gehiago  
Ez baladi gerta.

1/7 suyetak = gaiak

- 3/ Elgarrez agradatu  
 Bi presuna gazte,  
 Horien amodioa  
 Konsidera daike!  
 Baten aita eta ama  
 Kontrario duzte,  
 Holako afronturik  
 Ez bai zuten uste.
- 4/ Aita amek alabari  
 Konseilu arina:  
 —Ezkontza bat ba dugu  
 Zuretzat egina.  
 Harek barnian bai zuen  
 Sendimendu fina,  
 Amodiorik gabe  
 Etzen atsegina.
- 5/ Alabak errepostu,  
 Gazte izanik ere,  
 Borondate hunian  
 Segurki alere:  
 —Nundik izan daiteke  
 Hura ene jabe,  
 Egundaino nihuri  
 Itz bat erran gabe?

3/7 afrontu = iraiña, *afrenta*

5/1 errepostu = erantzuna

5/7 nihuri = neroni



6/ Behin errekontratu  
Beste anitz bezala,  
Uste gabeik halako  
Solasik bazela:  
Ene aita amekin  
Adiskide zela,  
Enekin ezkontzeko  
Arrañatia zela

7/ Errepostu eman nion  
Entzun bezain fite:  
—Ene kargurik gabe  
Trankil egon zite.  
Ni abisatu gabe  
Tratian ar zite:  
Arrañatu bazira  
Hekin ezkon zite.

8/ Hara nola baitira  
Gau eta eguna,  
Anitz diferentzia  
Ikusten duguna;  
Nahi balin baduzu  
Unione huna,  
Nor berak xerka beza  
Aldeko laguna.

6/1 errekontratu = topo egin

6/8 arrañatu = konpondu, itz-artu

7/2 fite = laiste

7/6 tratian ari zaite = tratuan ari zaite

8/7 xerka = billa, arki

- 9/ —Amodiorik gabe  
Ez naiteke esposa,  
Sekulakotz nindaike  
Orduan malurosa;  
Ene ixilik egin  
Dutenek ezkontza,  
Saldu nahi ninduten  
Animalen gisa.
- 10/ Aitarekin lanian,  
Amarekin elizan,  
Presuna xinpliagorik  
Etzitaken izan;  
Auzokuek, esenplu hek  
Obedi nitzan...  
Itsasoz pasatzera  
Obligatu nintzan.
- 11/ Adios, ama eta  
Aitari goraintzi!  
Montebideo'ra nua  
Biar edo etzi;  
Hango negoziuak  
Behar tut ikasi,  
Nola biziko giren  
Jinko Jaunak daki.

9/4 malurosa = zoritzarrekoa, doakabea

12/ Ene ama maitea,  
 Ze emazte prudenta!  
 Alabaren medioz  
 Etzitela inketa;  
 Zuk bizitzeko bahuza  
 Behar den errenta,  
 Eta ni Ameriketan,  
 Gaixo iñoranta.

13/ Karta igorri nakon  
 Ama nobliari,  
 Zuzenaren amatxi  
 Nahi zuen jarri;  
 Ene xangrinatzia  
 Ez da arrigarri,  
 Erreposturik ere  
 Ez baitaut igorri.

14/ Mila mila goraintzi,  
 Aita ama zuhurak!  
 Ontsa gozazkitzue  
 Aldudeko lurak;  
 Egiten batuzue  
 Kontratu makurrak,  
 Nor berak jasanen tu  
 Ondoko malurrak.

12/2 emazte = emakume

12/4 inketa = kezkatu, *inquieta*r

13/1 igorri nakon = bialdu nion

13/2 amatxi = ama pontekoa

13/5 xangrinatzia = samindutzia

14/3 ontsa gozazkitzue = ondo goza itzazute

14/8 ondoko makurrak = geroko okerrak

15/ Zer sinifikatzen du  
Kontrako sasoinak!  
Desagradable dira  
Munduko fazoinak;  
Plana justua eman  
Behar du gizonak,  
Eta partikularzki  
Herriko artzainak.

16/ Gezurrik balin bada  
Bertsu berri otan,  
Norbaitek erran date  
Aizezko bidetan;  
Bada permisionia  
Ohore beretan,  
Publika ditzatela  
Eskual herrietan.

15/4 fazoinak = moduak

---

Eman ditugun bertsuak J. C. Arrosagaray'ek bialduak dira. Errian bildu ditugunetan badira itz aldatuak:

- 1/ Bainan ez naiteke,  
ez, egon nehontik  
Suyetak ikusten tugu  
Bat bestiain ondotik.
- 4/ Aitak eman zeraitan  
Konseilu arina:  
Enetzat bazuela  
ezkontza egina.  
Barnetikan bai zuen  
sendimendu fina  
Amodiorik gabe  
ai, zer atsegina!

- 5/8 Egundaino nihauri  
Itzik erran gabe
- 6/1 Bidian errekontratu
- 6/3 Huste gabe halako
- 6/8 arranya zutela.
- 9/ Amodiorik gabe  
Etzaitela esposa  
Orori erraiten dut  
gaizki erran duta?  
Alabaren ixilik  
Aitamek salduta  
Animalia bezala  
arima saluta.
- 10/4 ez daiteke izan
- 10/6 hek obedi zitzan.
- 10/8 aplikatu nintzan.
- 11/6 nahi ditut ikusi.
- 12/5 Zu biziko zira behar den prudentzian eta
- 13/7 Erreposturik ere  
Ez baitzan igorri
- 14/7 Nork estimaturen tu  
Ondoko malurrak.
- 16/ Gezurrik balin bada  
Bertsu berri otan  
Erran dezakete: —oi zer mesianta!  
Permissionia bada  
Ohore beretan  
Publika ahal ditezke  
Eskual herrietan.

**AZKEN OARRA.** — Liburu au argitaratzeko lanak aurreratuxeak zeudela izan ditugu Ipar-Ameriketatik, ainbeste aldiz aipu dugun J. C. Arrosagaray'en berri jakingarri batzu.

1.<sup>o</sup> Kantu onen lenbiziko bertsua beste nunbaitik artua ote den, dio.

2.<sup>a</sup> Ezagutzen ez ginuen beste bertsu bat, zazpi-garren bezala ekartzen du berak, jakinarazten digu.

3.<sup>a</sup> Beste aldaketa frango ere sartzen ditu.

Alde batetik lana eginik zegolakotz, eta best'alde Luzaiden kantu au dakiten guziek, lenbiziko bertsu ori emaiten dutelakotz, len zegon eran uzten dugu. Ori bai; amasei bertsuren plazan, orai amazazpi izango dira, emendik aurrera.

Au da Juan Cruz'ek diona: "Berriz iskiatu ditut kantu hauk; lehen igorri nauzkizularik ez nuen erran nahi izan, nik ikasi lehen bertsa zela,

*"Mila zortzi ehun eta  
Iru ogoi eta  
Iru edo lauian  
gertatu sujeta..."*

"Geroztik mintzatu niz bano zaharrago eskualdunekin, eta kantu hauk ikasi zuztenekin, eta denek berdin erran dâte. Gainera, orai izan dut kopia, Bankako emazte batek iskiatiak dituela, ta andik ere gauza bera jin zaut. Horgatik, segur bezala niz zuk igorri lehen bertsa, alegia,

*"Kantatzera niazu  
Goguak emanik  
Menturaz obe nuke  
Ixilik egonik..."*

bertze kantu zombaiti kendia daiteke eta suyet oni lotua; eta kanpora uztia hobe da, ene idurikoii

"Agian, goiz aski helduko zaizu. Etxiaren izena da Aldude Menta".

\* \* \*

Beste aipatu ditugun aldaketak auek dira:

*J.C. Arrosagaray'en bigarren aldino kantuak:*

2/5 oraingo ez *litake*.

3/6 kontrario *diuzte*.

4/5 *Bihotzian* bai zuen  
sendimendu fina.

Bostgarren bertsaan ba dira itz frango aldatuak:

- 5/1 Alabak errepostu  
 Gazte *bazan* ere  
 Borondate *onean*  
 segurki alere;  
 —Nondik izan *ditake*  
 ura ene jabe  
 Egundaino nihuri  
*deuse* erran gabe?
- 6/8 Enekin ezkontzeko  
*arreñatu* zela

Zazpigarren bert sua guretako berria da; orai zortzigarrena izan beharko du ("*Errepostu eman nion...*"; eta gero, beste au):

Ait'amek ezkontzera  
 Naute akusatu,  
 Goguan ez dutana  
 Nik errefusatu;  
 Amodiorik gabe  
 Banintz esposatu,  
 Penetan behar nuen  
 Bizitza pasatu.

Gure oarretan, ez dugu kondatuko bertsu au, aha-paldiak ez nahasteko.

Zortzigarren eta bederatzigarren bertsuak elgarren artean aldaturik dakarzki.

- 8/1 *Hala* nola baitira  
 Gaua eta eguna...
- 8/7 ...nork berak *hauta* beza  
 aldeko laguna.
- 10/3 *Jende* xinpliagorik  
 Etzitaken izan.
- 11/7 Nola biziko giren  
*gure* Jinkuak daki.
- 12/1 Ene ama maitea  
 Emazte prudenta,  
 Alabaren medioz  
*etzaitela* inketa;  
 Bizitzeko bahuzu...

- 14/5 Egiten *badituzie*  
Kontratu makurrak  
Nork estimaturen tu  
Ondoko malurrak?
- 15/5 Plana justuak eman  
behar tu gizonak

Azkeneko bertsua da oraikoan, gehienik irabazian ateratzen dena. Oso-oso emanen dugu:

Gezurrik balin bada  
*Kantu* berri otan  
*Norbait* izan ditake  
Aditzeko bidetan;  
Bada permisionia  
Ohore *horietan*  
*Goraki kantatzeko*  
*Eskual* Herrietan.



## ERIO TZ KRUDEL BAT

(1864)

Arneguy'n gertatua. 1864'ko buruilaren zortzian (1), Orriagako Andredena Mariaren egunean, Xuharrenian nagusia hil zuten bere emazteak aginduta.

Etziren erritarrak hiltzaleak. Noizbait aipatu bai, zapatainari, ia etzion gau zonbait ez senarra erre kara botako. Arek, berriz, ezetz!! Munduko diru guziengatik ere etzuela alakorik egingen. Gero jakiten dira gauzak.

Aitzurrotxez garbitu zuten gizona behi jekten ari zen lekuan.

Egun artan dendaria (jostuna) etxean izan behar zuten. Batere alakorik pentsatu gabe, naguseak urre gordetzeko zuen gerrikoa desegiten ari zela, agertu omen zen etxekandearia:

—Ze gau iluna! —erran omen zuen. Eta

---

(1) 8 de septiembre de 1864.

gero, andik denboraren buruan berriz: “—Ze ilargi beltza den...!”

Aprendizak, orduan: “—Eztakit zer darasazun gaur... ilargi ederra da ta!

Eta ez ori bakarrik; gero, bi gizonen mintzoa senditzen du sukaldean. Aditzen du garbi:

—...halako zer bat badiat emen! Damu diat hila!

—Damutu!! Ez, orixe! Berriz egiteko prest nindukek prezio ortan!

(gaixo aprendizak, arriturik, iges badoa andik, behar den lekuan erraitera) Guardak agertu orduko, jendea bildu baizen etxera, eta norbaitek erran zuen ariek sartzean:

—Arrapa bazinezate egin diina!! (egin duena).

—Hina da! hina da! (egina da!) —guardak berriz. Emen dugu etxean!

(Hori erran guardak, eta etxekanderiari eskutan zuen azita (platera) erortzea, dena bat izan omen zen).

Haur ukan berria zelakotz libratu zen presondegira joaitetik. Orduan ere gertatu omen zen, bai! Haurra ukan zutela ta,

aita pozez beterik, jakina!, sartu izan behar zuen emaztearengana:

—Oraintxe, nahio induket ezkondurik ikusi! —egiten dio haurrari.

—Gure zaharrak, e!! Nahi ordu artio bizi!! —erantzun izan behar zion bere emazteak.

Bordelek ogeitabat bertsutan kantatu zuen gertakizun au. Iruñe'n argitaratuak izan ziren. Paperak ez du esaten zein etxetan. Beste bertsu bat bada, paperetan agertzen ez dena. Iturburu'ko Joanak erakutsi zidan; hura da ogeitabigarrena.

Asieran ekartzen dituen itzak, auek dira:

## ERIO TZ KR UDEL BAT

Eginazia haitak eta alabak hunen senarrian

ARNEG UIN 1864

Luzaiden, "*Xuhar zenaren kantiak*" deitzen dituzte. "*Xuhar zenaren Eriotza*" ere aditu izan dut.

Bordelek berak emandako izenarekin utziko dugu oraikoan.

1/ Orai agertzen dira  
Kantore herriak,  
Gazten hala zaharren  
Doloragarriak;  
Nork egintu halako  
Traidorekeriak,  
Eta partikularzki  
Bakotxai berriak?  
Estonaturik daude  
Eskual herriak.

2/ Eskual herrietan  
Fama aundia da,  
Bertze potentzietan  
Barna juana da;  
Ofreziturik ere  
Zernahi parada,  
Giristino fidelik  
Ez daite agrada;  
Esposak laudatzeko  
Eitate txarra da.

1/2 kantore = kantu

1/9 estonaturik = arriturik

2/3 potentzietan = eskualdeetan, alderdietan

2/6 parada = aukera, *ocasión*

3/ Iragan buruilaren  
Zortzigarrenian,  
Eriotze bat ein dute  
Ilundu denian;  
Prebeniturik zauden  
Desira hunian,  
Asesinatu dute  
Lurraren gainian,  
Mantxa hura han dute  
Biotzain barnian.

4/ Nonbaitereko gizon  
Triste erromesa,  
(Arrazoin horrengatik  
Nehor ez ofentsa),  
Etzen, ez, agradable  
Halako promesa:  
Kanpokoak egile,  
Etxekoak pentsa,  
Fagoratu baditu  
Zer errekonpentsa!

5/ Nausia lur barnian  
Martier hil otza,  
Oraino etxekuek  
Hun dute biotza;  
Hura galdurik ere  
Ayen erreposa!  
Munduko triumfetan  
Huntasunak goza;  
Gizonak maita diro  
Halako esposa!

6/ Esposa hila eta  
Aita galeretan, (2)  
Sekula bezain bero  
Bertze aferetan: (3)  
Horien konpromisa  
Etzen aferretan;  
Gastaturikan ere  
Zerbait paperretan,  
Aisa bizi daiteke  
Hurrari denboretan.

6/10 hurrari denboretan = urrengo denboretan

---

(2) Emaztearen aitak Aribeko ur edo iturritan lan egiten zuen. Alabak ainbat oben izango zuen, naski. Galeretara eraman zuten.

(3) "...bero bertze aferetan". Bigarren ezkontza prest! Luzaide, Bordaxarreko seme batekin, nik us-te. Orain dirua ba zuten; bainan bertze gauza anitz falta. Egun batez senarrak, poxporo edo mitxa buruak atera zopari eta, ederrak eman izan behar zizkion.

Beste aldiari sagu pozoina jatekoan sartu ta hilaz omen zuen bigarren senarra.

7/ Denbora noble hori  
Kanbia daiteke,  
Bi mundu plazerretan  
Pasatzia neke;  
Oraiko grado hori  
Atzeman du merke,  
Bertze tratamendu bat  
Egin nahi luke,  
Ahal bagindu zenbait  
Konde edo duke.

8/ Gero ere norbaitek  
Arriskaturen du,  
Fortunaz ez badira  
Lehendanik hundu;  
Arabez etzirela  
Beharrez ezkondu,  
Orietaz mintzo da  
Horren bertze mundu,  
Nola eman behar den  
Azkenian kondu.

7/6 atzeman = arkitu

9/ **Konsidera dezala**  
**Begira dagonak,**  
**Ez du gaitzik merezi**  
**Egia dionak;**  
**Ilun onduan ziren**  
**Heien obra hunak,**  
**Menturaz lehenago**  
**Barrenda egonak;**  
**Jornaleko hun dira**  
**Holako peonak.**

10/ **Obra manifiko bat**  
**Disposatu dute,**  
**Tribunale justuban**  
**Laudatzen badute;**  
**Luziferrek bezenbat**  
**Urgulu badute,**  
**Jaunaren poderia**  
**Galdu nahi dute;**  
**Orai goza ditela**  
**Huntsa egin badute.**

9/8 **barrenda egonak = zelatan egonak**



11/ Gizona bere faltaz  
Konsumitu hurran (4),  
Ikusi dena baizik  
Ez daiteke erran;  
Obraren arabera  
Beti arranguran  
Deskansurik ez duke  
Lurreko denboran;  
Hemengua gal eta  
Bertzia menturan.

12/ Gizona kondenatu  
Galeretarako,  
Fantasia gaistoak  
Hori egin dako;  
Lurrian bizi deno  
Miseria frango,  
Adiskide fidelik  
Jarraitzen zako?  
Urrikalmendu guti  
Halakoendako.

12/5 bizi deno = bizi dan artean

---

(4) Aitak bere laguneri Ariben lanean ari zen lekuan:

—Enaiekek nehon egon! Gure etxean zerbait gertatzen dela iduritzen ziaik, kasik...

—Ago ixilik, gizona! Guk ere gihaunak en ditiauk bezala eta tranquil gituk; zer duk oray, hori? Etzakela hortan pentsa...

13/ **Suyet horien xefa  
 Ez da hemen bera.  
 Krima aundiak ditu  
 Famen arabera;  
 Sekulako juan dute  
 Galeraz galera,  
 Hala duhan gizona  
 Ez da alegera,  
 Orai bihur laiteke  
 Jaunaren legera.**

14/ **Bat ain zaharra eta  
 Bertzia gaztia,  
 (Mundua-ilusitzale  
 Gaistuen tratia);  
 Haren larriaz bertze  
 Baten erostia,  
 Etxean sartu gabe  
 Zen konposatia (5);  
 Mirakulu aundia  
 Akort izaitia!!!**

13/1 sujet horien xefa = kontu oien buruzagia.

13/5 juan dute = eraman dute.

14/3-4 mundua ilusitzale gaistuen tratia = jende en-  
 gañagarri gaistuen tratua

14/5 larriaz = larruaz

14/8 konposatia = prestatua

---

(5) Lenbiziko aldian ezkondu aintzineko solasa.  
 Donibanera joan neskatoa pusken eroatera, eta sal-  
 tzaleak egin omen zion:

15/ Izpiritu duyenak  
Ba daki engoitik,  
Penak heldu direla  
Plazerren ondotik;  
Berak ez balinbadu  
Maite bihotzetik,  
(Hura da prinzipala  
Guzien gainetik),  
Ezkontzarik ez egin  
Interesaren gatik.

16/ Mundu au garnitzen da  
Kalitate oroz,  
Batzu fortunarekin  
Bertziak maluros;  
Anitz ezkondu dira  
Adineraz geroz  
Bihotza bete gabe  
Amodio beroz;  
Gero maitatzekotan  
Esposik ez eros.

15/2 engoitik = onezkero

16/1 garnitzen da = apaintzen da

16/4 maluros = zoritxarreko, doakabe

---

—Jes, haurral Gizon zahar horrekin ezkondu behar?

—Zaharrarekin berri bat eros badaike! —erantzun

17/ Zer sinifikatzen du  
Bihotzeko errak?  
Erredoblatzen dira  
Satanen indarrak;  
Deus ez du balioko  
Ondoko nigarrak,  
Kondiak eman behar  
Ditu bat bederak,  
Ahantziko baitira  
Tualet ederrak.

18/ Holako suyetikan  
Pasatu ote da?  
Gure denboran ez da  
Nehontik atera;  
Sartu nahi duienak  
Justoen artera,  
Penitentzietako  
Denbora fite da,  
Desertura joaiteko  
Nigar egitera.

17/1 errak = gorrotoak

17/4-5 kondiak eman bear ditu bat bederak =  
kontuak eman behar ditu norberak.

17/9 ahantziko = aztuko

17/10 tualet = *toilette*

---

zion ezkongaiak. Ori agertu nahi du Bordelek bertsu  
ontan:

“Haren larriaz bertze  
Baten erostia  
Etxian sartu gabe  
Zen konposatia”.

19/ Penetan den presunak  
Hun luke konsolu,  
Eman zuyen fedia  
Obserbatzen balu;  
Soinian ba dabila  
Sobera urgulu,  
Jenden murmuratzia  
Ez da mirakulu,  
Seinale ba duyela  
Bihotzian dolu.

20/ Ustez eginik ere  
Munduko fortuna,  
Deusetan ez daiteke  
Estima presuna;  
Zenbait egunendako  
Hun da huntasuna;  
Pratikatzen ez bada  
Borondate huna,  
Sekulako gal diro  
Bere urostrasuna.

19/10 dolu = damu

20/9 gal diro = gal dezake

21/ Kantu hok egin dira  
Ez libertitzeko,  
Baizik ere guziek  
Esenplu hartzeko;  
Nehor ez da kapable  
Justifikatzeko:  
Zernahi egin lirola  
Ez da fidatzeko,  
Boza eman duyenak  
Esposain galtzeko.

22/ Españako frontera  
Erri bat Arneguy,  
An gertatua da  
Mirakulo hori;  
Mendiaren gainian  
Odola ixuri!  
Gisa hortan iteko  
Asesina hori,  
Espos gaixua dute  
Zerurat igorri.

21/7 egin lirola = egingo lukela

21/9 boza = *voto*

21/10 esposain galtzeko = senarra galtzeko

---

Ikusi: J. M. Satrústegui: "Bordelen kantiak".  
"Egan", 1962, 34 orr.

## LIMITEN GAINIAN

(1865)

**Sekulako izen luzea eman zion Bordelek bere kantu oni:**

### CANTIA C

**Nafarrako eta Franciaco limiten convenioaren gainian  
formatiac Luzaiden Juan Echamendic  
1865 garren urtian**

Ogei ta sei bertsu ha ditu eta Iruñen argitaratua izan zen "indemnizazioren" bertsekin batean. Luzaiden aipatuenetatik dira, eta Erriko-etxe edo Ayundamenduan bildu ditut bertsu paperak.

Izatez ere, mugetan gertatutako gorabera aundien guzien liburu bat bezela da.

1/ Emeretzi siglotan  
Eztu falta anitz,  
Iru dozena urte  
Tronpatzen ezpaniz;  
Suyeten publikatzen  
Oray asia niz  
Oroitzen eztirenak  
Adbertitu nahiz,  
Xefen obeditzera  
Obligatu bainiz (1).

2/ Bortz ehun urte konpli  
Fronteran kimera (2),  
Bi nazionetako  
Auzuak minbera;  
Oraino segi laite  
Inbidia bera,  
Sumetitu beharko  
Odren arabera;  
Anitzek ez dirote  
Ori konsidera.

1/4 tronpatzen ezpaniz = engañatzen ezpanaiz

2/8 odren arabera = aginduen erara

---

(1) Emen agertzera ematen du ez duela bereganik ateratako lana bertsu auen paratzea. Nor ote ziren agindu zioten "xefak"?

(2) Bortz ehun urteko asarrea, Nafarroa hautsi baino lenagokoa da. Luzaideko lenbiziko auzia, Orriaga'k (Roncesvalles) Bayonako apezpikuaren kontra izan zuena da (1333).



3/ Odriak eman tuzte  
Ordenariuan,  
Fronteran egon ditena  
Nor bere graduan;  
Arrangura aundiak  
Dituzte ahuan,  
Promenatu nahiak  
Dira Nafarruan,  
Bertze pentsamendurik  
Eztute ahuan.

4/ Nafarruak galtzen du  
Bere terminotik  
Iru legua kanpo,  
Ori gutienik;  
Aski atzeman dute  
Arabez engoitik!  
Aingeru bat ezpalitz  
Agertu nunbaitik,  
Urrikalmendu guti  
Orien aldetik.

3/2 ordenariua = *código*

3/7 promenatu = *pasiatu*

4/5-7 aski atzeman dute arabez engoitik = aski  
arrapatu dute onezkero noski

5/ Fronterizo oriek  
Naturalak dira,  
Balute libertate  
Ikusiak tira;  
Nausi ahal balite  
Nekez erretira  
Guzien protxatzeko  
Entregu baitira:  
Xinurriak bezala  
Irakinak dira.

6/ Lehen ibili dira  
Disputa bilatzen,  
Indarren medioz  
Ziren baliatzen (3);  
Bortizki ari ziren  
Gurian manatzen;  
Ala sofrizia're  
Osoki pena zen;  
Oray erran bezate  
Eya norena zen.

- 5/2 naturalak = ajolagabeak  
5/8 entregu baitira = naikoak baitira  
6/6 manatzen = agintzen

---

(3) Banka'ko aziendak Luzaideko errian ibiltzen omen ziren. Gauaz bein bano gehiotan eliz atarian gelditzen ere bai... astoak. Behiak berriz, ermitako kaskoan. 1826'an Auritzen ameka etxe erre zituzten eta Orriagan beste bat, an sartuak ziren abereak bahitu zituztelakotz.

7/ Nola portatu dira  
Españolekilan?  
Beren numeruaren  
Indarrekilan;  
Menturaz ezpaitute  
Pentsatu sekulan,  
Brenuak bazirela  
Gure Peninsulan,  
Obrak agertzen dira  
Denborarekilan.

8/ Zernahi pasatu da  
Iran denboretan,  
Akzione tristiak  
Beti fronteretan;  
Goberniak eztiki  
Gure faboretan,  
Bake terriblia da  
potentzia otan,  
Estimatzeko luke  
Zeinek bere baitan.

9/ Beldur izan behar du  
Gerlate aundier,  
Etan eztitzen dira  
Zenbait gizon fier;  
Biotzez emaniro  
Konseilu guzier,  
Penarik ez desira  
Auzoko errier.  
Yaunak barkatu zuen  
bere hiltzalier.

10/ Badute inbidia  
Eta yeloskua,  
Sostengatu nahiak  
Arrazoin flakua;  
Eztezatela uka  
Gauza publikua:  
Nafarruak galtzen du  
Iru lau legua;  
Bistan eremaiteko  
Ori zer pikua! (4)

10/3 sostengatu = eutsi

---

(4) Baygorri aldean galdu zuen asko Nafarroak.  
Ondarrola ere bai.

11/ Nafarruak auzuan  
Ezagutzen dina:  
Beti bere aldera  
Nazione fina;  
Ederki zabilaten  
Beren ofizina,  
Siglotikan siglora  
Limitak aitzina,  
Españolak abiltzen  
Asi ez bagina.

12/ Limiten gainera  
Ardura disputa,  
Milaka desafio  
Arma artu eta,  
Kontrario gabe  
Ek ezin sujeta;  
Inprimerian daukat  
Orduko sujeta,  
Ahatziko direla  
Inposible baita.

11/2 ezagutzen dina = ezagutzen duena

11/8 aitzina = aurrera

12/2 ardura = sarritan, maiz

12/9 ahatziko = aztuko

13/ Auzo hunarendako  
Esenplu ederra!  
Lege huna dutela  
Hori gauza klara;  
Azienden mantenuko  
Bahutela beharra,  
Gozatu nahi zuten  
Español belarra;  
Gisa hortan badute  
Sekulako erra.

14/ Españako belarraz  
Da diferentzia,  
Guk ere desiratzen  
Defendiatzia;  
Frantziakua zela  
Zer aperentzia!  
Iretsi nahi zuten  
Gure Probintzia,  
Zuzenian eztute  
Mila prudentzia.

13/10 erra = gorrotoa

15/ Gure Probintzia da  
Españako lurra,  
Fronterizo oriek  
Beti arrangura!  
Okupazionia  
Bazuten ardura,  
Hunak edo gaistuak  
Emanik burura,  
Kexa presentatzia  
Gobernamendura.

16/ Gobernutik gizonak  
Manatzen zituzten,  
Konpostura asi ta  
Lehen bezala uzten;  
Guaurek ez duguya  
Garbiki ikusten?  
Lekuko abitantek  
Nahasten zituzten,  
Titulu errestorik  
Nehon ezpaitzuten.

15/6 ardura = askotan, maiz

15/9 kexa = keja

17/ Gobernietan ere  
Ezagutu zuten  
Gizon intresatiek  
Zer egiten zuten,  
Nahi zutena baizik  
Etzutela entzuten:  
Nazione guzia  
Ilusitzen zuten.  
Ordian sekulako,  
Disputa bazuten.

18/ Opinionia da  
Bi gobernietan  
Gauza hunik eztela  
Intresatietan;  
Gizon inpartzialak  
Arturikan listan,  
Nehon ibili gabe  
Limiten bisitan,  
Ek arrañatu dira  
Dokumenten bistan.

17/8 ilusitzen = engañatzen

18/9 arrañatu = konpondu



19/ Urruneko sabantak  
Jitearekilan,  
(Inbidia zutenek  
bazuten aski lan),  
Bi gobernietako  
Ordenarekilan,  
Bertzek pretentsionerik  
Etzuten ekilan;  
Justifikatu zuten  
Bayonako salan.

20/ Arrañoamendu horrek  
Zortzi urte ditu,  
Anitzek errain dute  
Eztutela aditu;  
Gure solasa ezta  
Prisaka finitu.  
Nork bere uñaziak  
Beharko sofritu  
Zerbait erremedioz  
Kentzen ezpaditu.

- 19/1 urruneko sabantak = urrutiko jakintsuak  
19/2 jitearekilan = etortzearekin  
19/8 ekilan = aiekin  
20/1 arrañoamendu = *konponketa*

21/ Iruretan ogoi ta  
 Emeretzi urte  
 Tratamendu oriek  
 Asirik badute (5);  
 Geroztik termino bat  
 Guria an dute,  
 Gu afrontu guzien  
 Korrespondiente;  
 Errebañak baitugu  
 Oray konpon bite.

21/7 afrontu = irain, *afrenta*

21/9 errebaña = norberaren puska

---

(5) "Tratado de Límites de 1785". Aldi artan, len bezain gaizki gelditu ziren gauzak. Onartuak ere etziren sekula betetzen asi. Esate baterako, Ondarrola, Luzaide'ko gelditu zen paperetan:

"Art. 6.º Asimismo por la parte de Valcarlos, todo el terreno que intermedia entre la línea tirada desde Mendimotxa hasta Pertole; y desde la piedra de Urdia por el curso del arroyo Eyarabide, hasta su desagüe al río que baja de Valcarlos, el cual pertenece al término y jurisdicción de Valcarlos."

Alare, frantzesen artalde ta behi saldoak etziren andik atera. Bordelek zion bezala: "Geroztik termino bat guria an dute."

22/ Karlos kinto izan da  
Enperadorea,  
Preziki espainolen  
Gobernadora;  
Hantik hunat ardura  
Disputa gorria,  
Guzien garbitzeko  
Jin da tenoria,  
Konserbatu baitute  
Beren ohoria (6).

23/ Irugarren Napoleon  
Jarri zen Frantzian,  
Enperadore eta  
Noble puxantzian;  
Fronterak ezarri tu  
Oro deskansian,  
Jaunak plaza baleza  
Bere saetsian!  
Borondate ori da  
Ene biotzian.

22/8 jin da tenoria = eldu da sasoi

23/4 puxantzia = *pujanza*

---

(6) Carlos V aipatzen du Nafarroa bi puska egin  
zuelakotz.

24/ **España**ko erregina  
Isabel segunda,  
Aren fama noblia  
Milaka urrun da;  
Bere arrazoinaren  
Segitzeko hun da;  
Oray haren pareko  
Printziperik nun da?  
Gizon abilek ere  
ez dirote konda.

25/ Gure doña Isabel  
Napoleoneki,  
Tratamendu eder bat  
Ein dute nobleki,  
Fronterako disputak  
Ikusteareki;  
Etziroketen obra  
Kristauek obeki,  
Separatu dituzte  
Nor beriareki.

25/7 etziroketan obra = etzezaketan egin

26/ Orien erregelak  
Oraino zer dion  
*Real Decreto* bati  
Begiratu nion;  
Manifestatu gabe  
Ez naiteke egon,  
Holako monarkarik  
Ez ahal da nehon.  
Biba Isabel eta  
biba Napoleón!

---

Ikusi: J. M. *Satrústegui*, "Bordelen mintzaira"  
(Euskera, 1962, 15'gn. orria).

J. M. *Satrústegui*, "Juan Echamendi, el cantor popular del Convenio de Bayona" (El Pensamiento Navarro, 20-XII-1956).

## NAPOLEON'EN BERTSUAK

(1870)

Bi Napoleon ba dira "Bordel'en" bertsutan. Napoleon lenbizikoarenak, gazte denbora-koak izan behar dute, eta menturaz ez dira "Bordelenak". Iru bertsu bakarrik esku-ratu ditugu (1).

---

(1) Napoleon lenbizikoaren bertsuak:

Luzaideko karrika  
Puxanten kanpañia,  
Aisa egiten dute  
Gorputzari maña;  
Enplegu gabia da  
Damu den konpañia,  
Gure gostuz nahia  
Egin "*Tour de España*".

Norbaiten ezpanute  
Gaizki abisatu,  
Nehorendako eztut  
Gezurrik pentsatu,  
Jendiak ez du behar  
Hortaz ofentsatu;  
Informen arabera  
Nahi dut konfesatu.

1/2 puxanta = poderoso

Napoleon III'garrenari emanak bai, bereak ditu. Atxikimendu aundia zion bertsulariak, mugetako goraberak zuzendu zituelakotz; ez da *Limiten gaineko bertsuak* ikusi baizik. Orai sendimendu aundia erakusten du frantzesen esker txarra dela-ta. Bordel'ek Napoleon III'garrenaren alderdia artzen du bertsutan.

Metz'en galdu zen Napoleon. 1870'ko partarskan nagusitu zitzaizkion Prusia'noak. Frantzik bialdu zuten, eta handik iru urte baino len hil. Bertsu auek garaitsu ortakoak ditugu eta, bertsulariaren ondar, urtetakoak, azkenak ez badira ere.

---

José "Caldero" jin da  
Napoleongua,  
Errege diote bainan  
Eztakigu nungua;  
España guzitik  
Bota du mandua,  
Haren eskuko dela  
Gure erreinua.

3/1 "José Caldero", Napoleonen anaiaren izen-goitia.

(Lengo mendeko paper zaharretan atera zait. Bigarren bertsuan Bordel'en eskua ikusten da. Beste biak ere hala ote dira? 1808'gn urteko gertakizunak bai dira, amasei bat urte zituen orduan Luzaideko bertsulariak).

Luzeak izan bear zuten. Bat edo beste  
baizik etzaigu gelditu (2).

1/ Napoleon jua del  
Frantziatik kanpo!  
Hari eman dakote  
Estakuria frango;  
Nausi atera balitz  
Prusiarendako (3),  
Etzuten ez guziek  
Abandonatuko.

2/ Napoleon jua del  
Dударikan ez-ta,  
Ez baitzion bentzitu  
Oraiko disputa; (4)  
Pentsaketa egiteko  
Tenoria baita,  
Zer irabazi dute  
Hura galdu eta?

1/4 estakuria = aitzekia

---

(2) Juan Cruz'ek dionez, emeretzi ziren Napoleon III'garrenaren bertsuak. Gazte denboran ikasirik izanak ditu denak. Orai etzaizkio burura hel-tzen.

(3) "Rusiarendako", egiten dute Luzaiden zon-baitzuk. Gaizki errana.

(4) "Ez baitzion bentzitu / Oraiko disputa". Juan Cruz'ek sartua izan laike lerro au; tinta diferentez ekartzen du.



3/ Napoleon nola den  
Apal eroria,  
Frantzia lagundu duen  
Enperadoria!  
Malurra malur dela  
Nun da ohoria?  
Abandonatu dute  
Beren faboria.

4/ Arribatu zenian  
Bazaine hori Metz'en, (5)  
Haren armada guzia  
Huntan desegin zen;  
Inbidiarik bezik  
Ez dugu aditzen,  
Gerra frantsesen eta  
Bitoria bertzen.

4/3 armada = *ejército*

---

(5) "Bazaine" Aquiles, Frantziko mariskala. Metz, eta 175.000 gizon etsaiaren eskutan utzi ondoan lekutu behar izan zitzaion. Espaiñian hil zen 1889'gn urte inguruan.

5/ Opinionia du  
Bakotxak beria,  
Gisa hortan galtzeko  
Enperadoria,  
Bertzetan ere bazen  
Zerbait larderia,  
Entregatu zelarik  
Haren armeria.

6/ Armak eta gizonak  
Dira entregatu,  
Uroski ez bai dira  
Guziak suntsitu!  
Egundaino ez dugu  
Bertzerik aditu,  
Zonbaiten fantesiak  
Oro galtzen ditu.

5/6 *larderia* = errespetua

6/4 suntsitu = ondatu, galdu

7/ .....  
.....  
.....  
.....

Gizon aundia frango  
Bazela Parisen,  
Bainan balentriagorik  
Ez dugu aditzen.

8/ Napoleon beldurrez  
Emigratu dena,  
Makurrik egin gabe,  
Bai dû aski pena;  
Gizon abila eta  
Justua lehena,  
Olaxe paratzen due  
Zuzen dabilena.

7/8 balentriagorik = azkarragorik

**BANKAKO NEXKATUAK**  
**(1874)**

1/ Mila zortzi ehun eta  
Gehiago dena,  
Hiruetan hogoi eta  
Amalau garrena;  
Serioski izan dut  
Nunbaitik ordena,  
Pertsuen paratzeko  
Ar dezadan pena.

2/ Pertsuen paratzera  
Orai abian niz,  
Suyetak nola diren  
Informatu bainiz;  
Yeloskuan bizi dela  
Nexka gazte anitz,  
Nik ez nitzazke sala  
publiko ez balitz.

2/5 yeloskuan = inbiriak

3/ Publiko da Baigorri  
Neskatuen solasa,  
Oraino aintzinago  
Ez baladi pasa;  
Sinesteko maneran  
Izan dut abisa,  
Joka aizan direla  
Adiskide gisa.

4/ Adiskide bezala  
Behar zuten izan,  
Elgarri *mendekatzen*  
Ez balira aizan;  
Ez da gauza propia  
Samurtzia plazan,  
Bakotxak bere faltak  
Beharko tu jasan.

5/ Zer erran ez dakiten  
Gazte inozentak,  
Punitu behar luzke  
Gure Presidentak;  
Nunbaitik heldu dira  
Holako presentak,  
Guzien yuyatzale  
Dira medisentak.

- 3/2 solasa = izketa  
3/3 oraino aintzinago = oraindik aurrerago  
3/7 aizan = ari izan  
4/5 propia = egokia  
4/6 samurtzia = asarretzia  
5/6 punitu = kastigatu  
5/6 engoitik = onezkero  
5/8 medisentak = gaizki esaleak

6/ **Medisentzia hori**  
**Ez da ene aldetik,**  
**Bainan salatariak**  
**Ba dira nunbaitik;**  
**Behin edo bietan**  
**Entzun dut engoitik,**  
**Nexkatuak dabilzala**  
**Mutilen ondotik.**

7/ **Nexkatuak gerlan ta**  
**Mutillak pake,**  
**Amorante solasa**  
**Dabilate merke;**  
**Behar bada norbaitek**  
**Fortuna in diroke,**  
**Eta beste zonbaitek**  
**Sekulako neke.**

8/ **Nexkatuen gerla dela**  
**Banka'ko errian, (1)**  
**Inprimatu behar da**  
**Testament Berrian;**  
**Fortunatu balira**  
**Ezpatak gerrian,**  
**Elkar onditzen zuten**  
**Kolera gorrian.**

7/6 in diroke = egin dezake

8/7 onditzen = garbitzen

---

(1) Beste bertsu batzuk ere ba dira Luzaiden Bankako neskatoen suyetaz: "Nahiz ez jendia anbat alegera...", asten dira. Es dira Bordelenak. 1915'ean gertatu gauzak izan behar dute.

9/ Koleran zirela  
Dударikan ez da,  
Bainan pena guziak  
Ezin manifesta;  
Ofiziale hunak  
Badu errekesta,  
Barnetik eri dena  
Sendatzera prest da.

10/ Neskatilla gaztiak  
Etziztela fida,  
Besten desohoratzen  
Gaizki ari dira;  
Arropa largo ortan  
Lanyeros baitira,  
Serioski diberti,  
Goizik erretira.

11/ Anitz hunkitzen dira  
Oraiko suyetaz,  
Nork eman diro kontu  
Obra guzietaz!  
Errana den bezala,  
Ni fida niz hortaz,  
Anitz lazo ba dela  
Aita amen faltaz.

9/6 errekesta = *estimación*

10/6 lanyeros = arriskuz

11/1 anitz hunkitzen dira = asko ikuitzen dira

12/ Obeditzen ez bada  
Ama edo aita,  
Anitz delikatu da  
Gaztearen kreita;  
Besten satisfatzia  
Inposible baita,  
Inprudentik ez daike  
Bihotzetik maita.

13/ Gazteak ba dabila  
Mila pentsamentu,  
Geroko segidari  
Egin beza kondu;  
Bakotxak bere karga  
Jasan behar du,  
Penatuko badare  
Nahi du ezkondu.

14/ Ezkondu eta gero  
Anitzak maluros,  
Elgarrekin disputan  
Gau eta egun oroz;  
Amodioa diruz  
Ez baditake eros,  
Neke da maitatzia  
Hastiatuz geroz.

12/4 kreita = *crédito*



15/ Besta irringarri bat  
Egin zuten Bankan,  
Ederrago liteke  
Ikustia bakan;  
Neskatuen bataila zen  
Koleraturikan,  
Biluak eta pildak  
Porroskaturikan.

16/ Geroko lanyerrari  
Ez dira behatu,  
Konbeni den bezala  
Nahi dut deklaratu;  
Uroski ez baluzte  
Gizonek behiratu,  
Norbeitek behar zuela  
Larrutik pagatu.

17/ Kuraya izaitea  
Ere ez da aski,  
Nagusi denak badu  
Abantailik aski;  
Konpañian zirenak  
Badakite naski,  
Soldado huna zela  
Bat partikularzki.

15/7 biluak eta pildak = illeak eta zarpak, *trapos*

16/1 lanyerra = arrisku

16/2 behatu = begiratu

17/4 abantaila = *ventaja*

18/ Anitzen galgarri da  
Gure urgulia,  
Hunak ez du nahi  
Gaizki ibiltzia;  
Izpirituz goberna,  
Denboraz balia,  
Aisago aziko du  
Bere familia.

19/ Enbidia ori ez da  
Lehenbizikoa,  
Benzitu nahi dute  
Jende ohorezkoa;  
Manifestatzen dute  
Beren yeloskua,  
Halakuak egin diro  
Ezkontza freskua.

20/ Gomuzki florian da  
Amodiua dina,  
Orok obe ginuke  
Halaxet bagina;  
Odolaren pizteko  
Jiten dan adina,  
Aisa konsola daike  
Holako xangrina.

19/6 yeloskua = inbiria

20/1-2 gomuzki florian da amodiua dina = geienezan  
loretan da amodioa duena

20/8 xangrina = samia

21/ Habitura gaistoa  
Sanya dakitela,  
Nehon ez dakite pausa  
Zonbaiten odola;  
Konsideratu gabe  
Bizi dira hola,  
Beren pasioniak  
Ezin disimula (1874).

21/1 habitura = oitura

21/2 sanya = aldatu

---

*Ttipittua'ingo papera.* — Eskuz idatzirik dago. Asieran esaten du: “a Sr. D. Erlanyo Caminondo”. Eta bertsen ondotik berriz: “Zure zerbitzari, NORBAIT. Valcarlos 27/6/30”. “Bancaco nechkatuen cantuyac”, deitzen ditu. Au da bildu dugun osoena: ogeita bat bertsu ekartzen ditu, eta uts gutxi ikusten da.

1/1 bederatzi

20/2 amodio duena

15/4 bekan.

## APEZENAK

(1876)

Izenez ez da gaizki kantu au: *bertsu liberalak* dira batzundako. *Karlisten kantiak* deitzen dituztenak ba dira (1). Luzaiden *Sazerdoten kontrakoak* erraiten diete gehienek. Izatez ere, "sazerdote" itz ori ibiltzen du Bordelek lenbiziko bertsutan; eta behar bada au izango luke izendatzeko modurik oberrera.

Alare, "*Apezen kantuak*" direla aditu izan dugu eta, itz onekin gelditu gera.

Behin, Arnegiko festetan, Sinket'enian gertatu omen zen Bordel eta nahi izan zazkoten "Sazerdoten kontrako" kantuak kantatuazi. Bana, ez kantatu! Agertzera eman izan behar zuen damutu zitzakola egitea.

---

(1) Juan Cruz Bordelekoak, esate baterako, (1964 Otsailaren 23'ko idazkian) izen ori ibiltzen du.

*Airea: "Kattalin ttuku, ttuku,  
Kattalin arina"*

- 1/ Karlosen desira zen  
Españian nausi,  
Suyeten publikatzen  
Nahi nuke asi;  
Nola kurritzen baitu  
Montaña eta sasi,  
Ladronkerian baizik  
Ez dute ikasi.
  
- 2/ Karlos abiatu zen  
Sazerdoten lagun,  
Tema ortan direla  
Badu zonbait egun;  
Guk emanak nundiren  
Ez dira ezagun,  
Zer etxeko semiak  
Dotatzen ditugun!
  
- 3/ Nahaskerian dabilta  
Zonbait sazerdote,  
Berak direla kausa  
Ez ditugu maite;  
Gizon gaixtua frango  
Konberti lirote,  
Mintzo diren bezala  
Goberna balite.

- 4/ Sazerdotek diote  
Otoitz egiteko,  
Karlos benedikatu  
Setimorendako;  
Ladronguari benta  
Huna eman dako,  
Lurreko abitante  
Guzien publiko.
- 5/ Ohore bide zaio  
Karlisteriari,  
Noblezia dutela  
Gerlaren gidari;  
Batailan segurretik  
Nahi dute ari,  
Garrik formatu gabe  
Kabaleriari.
- 6/ Karlisten usaia da  
Ez abantatzeko,  
Entregu ez badira  
Batailan artzeko;  
Sasiko alderdia  
Baliatzen zako,  
Otsuen gaztelura  
Erretiratzeko.

6/1 usaia = oitura.

7/ Laborari gaixua  
Aisa da erori,  
Hobenik egin gabe  
Sekulan nehoi;  
Sortu giren guziek  
Ba dakigu hori,  
Zorrik ez ginuela  
Karlos setimori.

8/ Karlosen abantailak  
Nahi tuenak aditu,  
Traidore horiekin  
Faboriak ba ditu;  
Nazione guzia  
Arruinatu gaitu,  
Lorian bizi ginen  
Ez balitz agertu.

9/ Zonbaitendako on da  
Haren agertzia,  
Guri tokatu zauku  
Anitzen galtzia;  
Arrazoina ezin pasa,  
Hau ezin-bertzia!  
Nagusi den partia  
Beti sinetsia.

- 10/ Laborari pobriak  
Derama bizia,  
Lurrarekin borroka  
Denbora guzia;  
Familiako eskas  
Bere irabazia,  
Apez edo notari  
Hobe da jartzia.
- 11/ Karlosen defentsorrek  
Jarri ziren teman,  
Oren baten bakerik  
Ez dagute eman;  
Erdiak destruitu,  
Beste erdiak ereman,  
Obra onik indute  
Gure erresuman.
- 12/ Karlosen defentsorrek  
Duten pasionia,  
Guziak ohoinguan,  
Zer anbizionia!  
Konformatzen asi da  
Gure nazionia,  
Esku onetan dela  
Errelisionia.



13/ Adinetan aitzina  
Izanikan ere,  
Egiaz mintzatzeko  
Ni ez nüz erabe;  
Afer tunante batzu  
Gure onen jabe,  
Lehen zerbait zutenek  
Orai deuse gabe.

14/ Baliatu direno  
Zerbait engañioz,  
Bakerik etzitaken  
Heyen amodioz;  
Errefusarik gabe  
Egonak serios,  
Jaun aundi egin dire  
Gerlaren medioz.

15/ Kanbiatzen asi da  
Karlosen segida,  
Famaren arabera  
Flakatzen ari da;  
Frantziarat omen du  
Eraiko salida,  
Segur niz montañetan  
Ez dagola fida.

16/ Finkatu nahi zuten  
Karlosen legia,  
Ez litake komeni  
Erten dun egia;  
Injustuak bai dira  
Dena zarkeria,  
Españiatik ihesi  
Errege nahia.

17/ Nafarrua eta bertze  
Iru Probintzia.  
Etzuten karri nahi  
Obedientzia;  
Orai obe lukete  
Umiliatzia,  
Ez badute bilatzen  
Esklabo jartzia.

18/ Karlos damu litake  
Abandonatzeko,  
Maluroski sortu zen  
Gure penatzeko;  
Zer arrazoin ginuke  
Haren maitatzeko,  
Deretxorik ez du ta  
Orotan artzeko?

- 19/ Erruak barna ditu  
Jenden maleziak,  
Deusik ez du balio  
Finaren biziak;  
Lana frango baluke  
Orai justiziak,  
Kastiga balitzate  
Traidore guziak.
- 20/ Obraren arabera  
Dira informiak,  
Arruinatu dituzte  
Gure eremiak;  
Bai eta galarazi  
Aitamen semiak,  
Piedade gabeko  
Gizon infamiak.
- 21/ Indarra heldu zela  
Gobernamendutik,  
Karlos ikaratu zen  
Guzien gainetik;  
Erretira egin du  
Ahal duen lekutik,  
Trenpian heldu ziren  
Etsaiak ondotik.

22/ Diputazionia  
Pasatu zen lehenik,  
Nahi zuten xikana  
Guzia eginik;  
Ez ahal da nehore  
Europan gizonik,  
Oriek bezain aisa  
Aberastu denik.

23/ Formatu zirenia  
Bataila kanpalak,  
Fite bildu zituzten  
Karlistek egalak;  
Benedika ditela  
Armada legalak,  
Biba Alfonso eta  
Haren jeneralak.

24/ Jaunaren azotia  
Ez bezate etsi,  
Flakatu arteraino  
Ez dute sinetsi;  
Igortzen ahal dute  
Españari goraintzi,  
Sekulan ez dirote  
Gobernurik bentzi.

25/ Nola baita sobera  
Karlosen botuko,  
Badakit ez nautela  
Grazian artuko;  
Ni ez niz aintzinago  
Deusetan sartuko,  
*In aeterno* ez dute  
Par ori pastuko.

---

*Juan Cruz Arrosagaray.* — Luzaiden bilduak ogeita bi bertsu ziren. Irur gehiago ekartzen ditu J. Cruz'ek: 15, 16 ta 18'garrenak. Berak emanetan aldatutako itzak: 14/7 erresusarik.

18'garrenean, "Nafarrua eta bertze / iru Probin-tziak", obeki egongo litzake. Alare, ekartzen duen bezela utzi dugu.

22/4 guziak

23/2 kanpanak

*Errian egiten diren bertsuak.* — Luzaiden kantu auek egiten dituztenak ba dira. Batek bertsu bat eta, besteak erdia, ogeita bi bildu nituen. Aldake-ta txiki batzuk ere ba dira:

5/2 karlisteria- (ri)

5/7 garre formatu gabe  
kabaleria- (ri)

7/1 laborari humia

7/5 sortu diren guziek  
badakite

9/3 zaigu

9/5 arrazoina

10/1 laborari humiak

10/3 lurraikilan

10/5 familian

12/4 zer azionia

24/2 ez du zeren etsi (etsi = cerrar. Uste izan dute "etsi" = *desesperar*, *desconfiar* bezala zela eta aldatu dute bertsua).

*Aita Donosti zenaren bertso-bilduman*, bada Argentina-ko euskal bertso-kuaderno baten kopia. Auetarik zortzi bertso ditu: 1, 2, 4, 5, 6, 11, 7 ta 10. Izena berriz onela du: Carlos zazpigarrenaren kontra.

Aldaketak:

- 1/5 nola kurritu baitu
- 4/5-6 ladronkeriari benta  
ona eman daiko
- 5/1 ohore bide zayote
- 5/3 nobleza dutela
- 5/7 karre formatu gabe
- 6/4 batallan hasteko
- 6/6 baliatzen zaiko
- 6/7 otsoen kastillorat
- 11/4 ez daikute eman
- 11/6 bertzeak ereman
- 11/7 obra onik egin dute
- 7/1-2 Laborari flakoa  
aise da erori
- 7/5-6 sorthu diren guziek  
badakite hori
- 10/ Laborari gaixoak  
deraman bizia  
familiak eskas  
bere irabazia  
lurrakin borroka  
denbora guzia  
aphez edo notari  
hobe du sartzia.

## AZKEN KANTUAK

### “SORTUZ GEROZ GUZIEK...”

Izenez ez da gaizki kantu au. Hil aintzi-  
nean agoan zuela ta, “*Bordelen azken kan-  
tiak*” dira here erritarrendako. Egia da beste  
abesti bat errepikatu zuela uste dutenak ere  
badirala; “Oroit gaiten guziok hiltzeko ore-  
naz” izango zen orduan “*Bordelen azken  
kantia*”.

Alare, guztiz gehienak lenbizikoa egin  
zuela, diote.

Aita Onandiak, Luzaideko ondar bertsua  
lenbizikorik emaiten du eta hortaz gidatuz  
“*Nahi balin ba'gira hil*”. deitzen du.

Juan Cruz Arrosagaray, naiz Ameriketan  
egon, bertsulariaren etxeko semea da. Gazte  
denboran bertsulariaren “original kopiak”  
eskutan ibili zituela ta, “*Munduko zuzen bi-  
diain kantiak*”, izendatzen ditu.

Guk, gehienetan egin oi den bezala, len-

biziko bertsua onartzen dugu izenetako:  
“Sortuz geroz guziek”, erranen diogu.

Orai baino len itz egin da bertsu hotaz (1).  
Ondarrean badugu egile-kontuaz zerbait.

1/ Sortuz geroz guziek  
Zor dugu hiltzia,  
Deusik ezta gure  
Munduko bizia;  
Kita dezagun beraz (2)  
Hemengo auzia,  
Garbiki esamina  
Gure konzientzia;  
Bertze munduan da  
Gure justizia,  
Azken sententzia,  
Zer ordu tristia,  
Eternidadeko  
Penaren luzia!

---

(1) Ikusi: J. M. Sarrástegui. “Hiltzera Kantuz Prestatu zen Bertsularia” EGAN, 4 — 6, 1963; 83-88 orrialdetan.

(2) “Kitatu” = utzi, kendu.

Luzaiden kantatzen dute:

“Kita dezagun, kita  
Hemengo auzia”.

Seigarren bertsuaren berriz ateratzen da:

“Bekatu egiteko  
Kostuma kitatu  
Lehen eginetaz  
Urrikitan sartu...”

Bordelek beste kantu batean, nigarrez maiteari:

“Zell! Ala orai kitatzen nauzia  
Arabez, obe batendako?”.

(“Bihotza zeraut nigarrez urtzen...” 3/6.)



2/ Pena hetaraz geroz  
Ez da libratzerik,  
Eternidadiak  
Ez du finitzerik;  
Zenbat arima gaixo  
Han kondenaturik,  
Sekulan libratzeko  
Ez esperantzarik!  
Hetaz oroiturik,  
Gauden doloturik,  
Umiliaturik,  
Etsenplu arturik,  
Noiznahi partitzeko  
Lur triste huntarik.

3/ Jaunak igorrien du  
Zerutik galdia,  
Erioa du bere  
Mandataria;  
Harek erranez geroz  
Juaiten ahal gira,  
Gure yuyatzaliak  
Prest egonen dira;  
Guk egin ongia,  
Bai eta gaizkia,  
Heien arabera  
Yuyaturen gira;  
Memento lazgarriak  
Ordukoak dira.

2/10 doloturik = damaturik  
3/1 igorriren du = bialduko du

4/ Mundu huntako penak  
Deusikan ez dire,  
Bertzekuen aldian  
Itzalaren pare;  
Urriak miliunka  
Pasaturik ere,  
Miserikordiarik  
An ez da batere;  
Zeruko Errege,  
Egizu fagore,  
Oro zuri gaude,  
Hortik altxa zaite  
Gure arima gaixo  
Doloratuen jabe.

5/ Andre Dena Maria  
Birjina garbia,  
Zure laguntzaren  
Beharretan gira;  
Zeren ofentsatu dugun  
Gure gidaria,  
Zure Seme dibino  
Eta Jaun aundia;  
Gaiten umilia,  
Denboraz balia,  
Eternidadiaz  
Oroitzen bagira,  
Zeruko atepak  
Idekiren dira.

4/2 deusikan = ezer

6/ Nahi balin ba'gira  
 Hil eta salbatu,  
 Artean behar dugu  
 Denek konbertitu;  
 Bekatu egiteko  
 Kostuma kitatu,  
 Lehen eginetaz  
 Urrikitan sartu;  
 Ez berriz lerratu,  
 Ahalaz behiratu,  
 Ongi konfesatu,  
 Hiltziaz oroitu;  
 Denbora joan eta  
 Ez dugu probetxu.

6/8 urrikitan = damutan

6/9 lerratu = irristatu

---

Juan Cruz Arrosagaray. "Bertsu papera". Pomona (Calif.) 1963. Abenduan.

2/14 "Noiz nahi partitzeko  
 mundu huntarik (bertso motza)

3/9 Ekartzen duen bezala egiten da Luzaiden ere:  
 "Egintun ongiez  
 Bai eta gaizkiez  
 Heyen araberan  
 Yuyaturen gira  
 Memento latzgarriak  
 orduan dira".

4/13 "Gure arima  
 Doloratuen jabe" (motz gelditzen da lenbi-  
 zikoa)

5/13 "Zeruko atiak  
 Idokiren dira".

6/3 "Arte huntan behar  
 gira konbertitu".

Eta bertsu onen azken lerrotan "poto" egiten du:

"Lehen eginetaz urrikitan sartu  
 Ez berriz lerratu  
 Ahalaz beiratu  
 Ongi konfesatu  
*Maiz* hiltziaz oroitu  
 Hortarik behar gira zeruan *sartu*".

"Milla Euskal Olerki Eder", 580'gn orrialdean.  
 Mendiagek, "Eskualdun Kantuak" izenarekin Chile'n (1900) argitaratu liburutik artzen du Aita Onaindiak. Hazparneko Katxorenak bezala emanak dira.

Bost bertsu ekartzen ditu bakarrik: emen laugarrenetako artu duguna eskas du Mendiagek. Luzaideko azken bertsuarekin hasten dute auek kantua. Guk errespetatu dugu mundura etortzearekin asi, eta, hil ondoan salbatu behararekin bururatzea... herriak egiten duen bezala.

1/8 "Garbiki dugun iker  
gure kontzentzia".

1/13 "Oi eternitateko..."

2/3 "Ez, eternitateak  
ez du finitzerik

2/9 "Hetaz oroiturik  
Gauden lotsaturik... Noiz-nai prest joaiteko".

3'gn. bertsa:

"Jaunak igorriko du  
 Zerutik galdia;  
 Herio ebaslea du  
 Mandataria:  
 Harek erranez geroz  
 Joaiten ahal gira  
 Gure bideko lagun  
 Hor izanen dira".

Erran bezala, laugarren bertsurik ez dakar.

5/3 "Zure laguntza onen  
Beharretan gira,  
Ofentsatu baitugu  
Gure gidaria.

5/9 "Gaiten humilia  
Denboraz balia:  
*Bai, beti bizia*  
Oroitzen ba'gira  
Zeru-ate sainduak  
idekiren dira".

6/7 "Lehenago eginez urrikitan sartu",

6/13 "Denbora joanez geroz, ez baita probetxu".

*Jose Miguel Barandiaran upaiz jaunaren kuader-  
noa.* Eskuz idatzirik dago Sara-n bildu zituan ber-  
tsoakin.

Bertze orden huntan ditu bertsoak: 6, 1, 2, 4, 3, 5.

1/8 gure kontzientzia

1/12 zer oren tristia

2/5 zenbat arima ez da

2/10-13 etsenplu harturik  
gauden lotsaturik  
humiliaturik

2/14 mundu hontarik

3/1 Jaunak egorri du

3/5-14 ta 5/5-14 tokiz truke eginik daude

3/5-6 hura jinez geroztik  
juan beharko gira

3/8 prest izanen dira

3/9-10 guk egin gaizkia  
bai eta ongia

3/12 pagaturen dira

3/14 izanen dira

4/2 deusik ez dirade

4/3 bertzekoen aldian

4/10-11 oro Zuri gaude  
iguzu fabore

4/13-14 gure arima doloratuen jabe

5/6 ofentsatu baitugu

5/14 idekiko dira

6/2-3 arte huntan behar  
gira konbertitu

6/7 lehen eginez ere

6/14 ez baita probetxu.

Ta seigarrenaren ondoan bertze hau dakar:

Jauna, zure graziak zoin diren handiak!  
ez ditazke erran hekien nonbriak,  
zeruko iduzkia eta ilhargia,  
Jauna, gidatzen ditu zure poteriak,  
errebelatuak gu zure ardiak,  
senda tzatzu gure arima eriak,  
othoi ez abandona zure umiak.

...*Katxorena edo Bordelena?*

Bordelenak badira, ez badira, bi kantutan ditugu gure kezkek: eta bederatzi punduko bertsuan biak.

“Ene izpirituan bazen zenbait bertsu”, *Bidarraitarra*’ren aire berean kantatzen da. Hortarik, Oxaldek egin zuela erraitera ez da bide aundia.

Ez dut ezagutzen M. Etxetto, Hazparneko Katxoren joera; guti dakit bere bizimoduaz. Ez dut nik erranen haren luma zertaz zen kapable. Nik dakitana, Bordelenak izan laizkela “Munduko zuzen bidia in kantiak”.

Iru ideia artuko ditugu eta Bordelez oroitu:

I.—*Hiltzeko orena.*

Au da kantuaren suyeta: “*Sortuz geroz guziek/zor dugu hiltzia*”. Anitzetan errepikatzen du gauza bera: “*Gauden dolaturik/Umiliaturik/Etsenplu arturik/Noiznahi partitzeko/Lur triste huntarik. 2/10. Eta seiga-*

rreanean: "Nahi balin ba'gira/Hil eta salbatu/Artean behar dugu/Denek konbertitu... Ongi konfesatu/Hiltziaz oroitu...

Fededun aundia izana da Bordel, eta nun-nahi erein zituen halako bertsuak:

"*Ene Andregaiari*", i z e n e k o bertsutan erraiten du:

"Ez da abilezia  
Urgulu artzia  
Hiltzeko sortua da  
Mundu guzia". 7/10

"*Karlisten Kantutan*".

"Izanik ere mundu guzia  
Ezin konserba bizia  
Ori da ezin bertzia!  
Ez da aski diru biltzia  
Orok zor dugu hiltzia.

(11'gn. bertsuak).

II.—*Eternidadia*.

"Eternidadia" du kantu ontan bigarren ideia nagusia. Sei bertsutatik lauetan, horek emaiten dio lanik aundiena: hori du go-goan.



*“Zer ordu luzia/Eternidadeko/Penaren luzia! (lenbiziko bertsuak).*

*“Eternidadiaz/Oroitzen bagira/Zeruko atak/Idekiren dira (6/11).*

*“Pena hetaraz geroz/Ez da libratzerik/Eternidadiak/Ez du finitzerik (2).*

*“Urriak miliunka/Pasaturik ere/Miserikordiarik/An ez da batere (4/5).*

Andik eta emendik bertsuak ateratzea baino obe izango delakoan, emango dugu emen gai ontaz Bordelek duen beste kantu bat:

### “OROIT GAITEN GUZIOK...”

1/ Oroit gaiten guziok  
Hiltzeko orenaz,  
Munduko izaitia  
Zenbat den gorenaz;  
Jinko Jauna adora  
Obra oberena,  
Gastigatu gaberik  
Ifernuko penaz.

1/2 orenaz = orduaz

1/4 gorenaz = geienaz

- 2/ Ifernuko gauzetan  
Utzirik debrua,  
Merezitu behar da  
Salbamendua;  
Utzi dezagun beraz  
Alderat mundua,  
Eta otoitz dezagun  
Maria Saindua.
- 3/ Maria Saindua da  
Jainkoaren Ama,  
Gutaz urrikal zaite  
Semearengana;  
Ez gaitzan sekulakotz,  
Otoi, abandona,  
Tormentu aundietan  
Sar ez gaiten barna.
- 4/ Tormentu pasione  
Guziak batian,  
Oiuz eta marraskaz  
Gaistuen artian;  
Goberna gaiten beraz  
umilitatian,  
Loriaz gozatzeko  
Eternitatian.

4/3 marraskaz = marruaz

- 5/ Zeruko loria da  
Paregabekua,  
Behin-ere penarik  
Gabeko lekua;  
Bai eta ifernua  
Tormentatzekua,  
Ez baitu ikusiren  
Sekulan Jainkua.
- 6/ Jainkua ezin ikus  
Gaistakinik baizik,  
Antik ezin eskapa  
Nehorat igesi;  
Dudaturikan ere  
Behar da sinetsi,  
Ez girela betiko  
Mundu hontan bizi.
- 7/ Munduko izaitia  
Izanen da labor,  
Inorantak kreatu  
Diren bezain segur;  
Gorputzaren gustier  
Iten badegu agur,  
Oro izanen dira  
Arimaren malur.

7/5 gustier = gustuai

8/ Arimak galtzen tugu  
Eternidadekotz,  
Bekatua lazoki  
Iten dugulakotz;  
Irrisku aundietan  
Sartzen girelakotz  
Laster gomenda gaiten,  
Ez behira geroko.

9/ Gerorat egoitia  
Ez da guretako,  
Beldur izan behar da  
Memento bereko;  
Separatzen bagira,  
Erreparatzeko:  
Sekulako tormentak  
Etzaizku faltako.

10/ Tormenturen aldi  
Dela gisa hortan,  
Konsidera dezagun  
Zoinek bere baitan;  
Su-xu me bat etzakegu  
Sofri mundu hontan,  
Nola behar den egon  
Hango su-lametan!

8/3 lazoki = errez, aixa

10/5 su-xu me etzakegu = sutxo me bat ez de-  
zakegu

10/8 su-lametan = su-garretan

11/ Su-lamez lastimetan  
Egon behar beti,  
Ez bagira justoki  
Partitzen emendik!  
Misterio gogorrer  
Kasu-inez geroztik,  
Nork ez du maitatzen  
Jesus bihotzetik?

12/ Jesus ez maitatzia  
Inozentkeria,  
Artetan juzgatuz  
Federik gabia;  
Artzat yuyamenduko  
Ene erabia,  
Beldurrez hausi nadin,  
Oi bekataria.

13/ Bekatari guziak  
Umilia gaiten,  
Gure salbamendurik  
Egin ahal daiken;  
Denboran ez badugu  
Kasurik egiten,  
Barkamendurik ez du  
Jesusek emaiten.

12/5-6 artzat yuyamenduko ene erabia: ar deza-  
dan juzioko nere bildurra

12/7 kausi nadin = arki nadin

14/ Jesus Jauna dabila  
Beti gure bila,  
Besuak zabaldurik  
Gonberti gaitela;  
Mortifikazioneri  
Barkatzen duela,  
Irabazi dezagun  
Lori eternala (3).

Anitz pundutan elgarretaratzen dira bi  
kantua. Haste hastetik lotzen da gaiari:

“Oroit gaiten guziok  
Hiltzeko orenaz  
Munduko izaitia  
Zenbat den gorenaz...”

Punduz puntu, ikusten da elgarren kutsu  
bat bezala. Ez goatzi denetan sartzera. Ar  
dezagun bat:

“Sortuz geroz...”

4/1 “Mundu huntako penak  
Deusikan ez dire,  
Bertzekuen aldian  
Itzalaren pare...”

---

(3) *Dominica Errecart*, Toloxako etxekandriak za-  
kina.

6/2 Gaistakin = malhechor  
7/8 malur = desgracia  
10/5 suxu = sutxo (llamita)  
10/8 sulama = llamarada  
12/5 artzat = ar dezatela  
12/6 erabe = beldurra

2/1 Pena hetaraz geroz  
Ez da libratzerik  
Eternidadiak  
Ez du finitzerik..."

*"Oroit gaiten..."*

10/5 "Su-xu me bat etzakegu  
Sofri mundu huntan,  
Nola behar den egon  
Ango su-lametan!

11/1 Su-lamez lastimatzen  
Egon behar beti  
Ez bagira yustoki  
Partitzen hemendik..."

Eta Katxorena erraiten den kantuari, Bordelen edozein bertsutan atera laizke elgariduriak: batzutan itzez itz:

5/9 "Gaiten umilia  
*Denboraz balia..."*

(Sortuz geroz...)

"Anitzen galgarri da  
Gure urgulia...  
Izpirituz goberna  
*Denboraz balia..."*

(Bankako nexkatuak, 18/)

### III.—*Yainkoa eta Andre dena Maria.*

Azkenekotz, Yainkoa eta Andre dena Maria'ren gaietan aberatsa da Luzaideko bertsularia. Siniste aundiko gizona, kateximako eginak iduri dute zenbait aldiz bere bertsuak.

Berez suyeta gordinak direlarik ere emaiten du konseilu on bat; "Baygorriko bertsutan, bi gazten arteko eskandala aipatzian, dio:

"Animalek hilez geroz  
Ez dute deusen beldurrik,  
Orien pare ez dakike jar  
Giristino zuhurrik.  
Nola biziak ez baitu  
Memento bat segurrik  
Hobe dugu kanbiatzia  
Ez izaiteko malurrik."

(Baygorriko egalian, 5)

Arnegy'ko Xuhar zenaren eriotza bertsutan emaitan, herriz:

"Kantu hok eman dira, ez libertitzeko  
Baizik ere guziek esenplu hartzeko;  
Nehor ez da kapable yustifikatzeko..."

(Xuhar, 21)



Sobera luze litaike orai Bordelek Jainkoa eta A. D. Mariari buruz emandako bertsu guzien ekartzea. Bakarrik erranen dugu puntu hontan ere bereak bezala jo litzaizkela Mendiage'ri Katxorenak iduritutako bertsuak.

Solas mundu au alde batera utzirik, bi alderditako auzia zertan den ikus dezagun orai.

1900'gn. urtean argitaratu zuen, "Eskualdun kantua" izenarekin, Mendiage'k bere liburua. An sartzen du "Sortuz geroz guziek". Hazparneko Katxoren izenean; eta handik artzen dute geroko gehienek.

Ameka urte zituen ordukotz mundu ontatik joanik Bordel bertsulariak. Berak ezinez, bere erritarrak izan dira bertsu auetan Bordelen izena aintzina atera dutenak. Ona emen, bertze ainitzen partez, bertsulariaren etxeko seme batek, duela bizpairu urte Kaliforniatik idazten zidana:

"...bertzalde diozu liburu bat egitera zuatzila..., Juan Echamendiren bizia eta haren bertsuak emanaz.

Ene aitaren aitatto zenaz geroz, eta ene erraza eta etxe berian sortu eta

azia, orrek bihotza hunkitzen daut biziki.

Bakarrik, gauza au nahi dazut erran: ez ditut oraino zuk igorri kantu guziak etsaminatu; bakarrik ikusten dut faltak badirela eta egun guti barne izain duzu bertze letra bat eneganik obserbazione zenbaitekin; zeren kantu hotarik zenbait ikasi nituen *original kopiatarik*, eta oraino goguan ditut anitzak.

Orai huntan igortzen dauzut Bordelen azken kantutarik bat. Zahartu zelarik emanak zituela kantu ok entzuna nuen ene haur denboran". (Munduko zuzen bidian kantiak: J. E. "Bordelek" emanak).

L. Dassance, jakintsun eta adiskide maiteari zor diot beste argi izpi bat. Bere paper zaharretan beiratutako kantu onen kopla baliosaren berri emaiten zidan, erranez: "Gure zaharrek zioten: gero dionak, bego dio! Huna, berehala, hitzez itz eta paperak emaiten duen bezala, ene aitaren osabak, Dassance aphezak, bere eskuz iskiriatu kopla...

...Dassance apheza 1858'eko urtharrillaren 25'ean hil da”.

Hortan ikusten da ez dela Bordelen zahar denborako kantua. Nik beintzat, ez nuen sekula aditu. Arrosagaray'ek haur denboran entzuna, ez ote da guri ase artio errepikatu izan diguten solas bera? Alegia, “Bordelek hil aintzinean egin kantua direla”. Hortako deitzen dituzte Luzaiden bere “azken kantua”. Ez dute, orduan asmatuak zituela agertzera eman nahi; azken ordutan agoan zituela baizik.

Eta Mendiage, zer?

Nola nahi dela, etzuen iturri hoberenetik kantu hau. Lenbiziko lana, sei bertsutatik bostekin gelditu zen bakarrik.

Bialdu nazkion Juan Cruz'i, nundik nituen erran gabe, eta hau erantzun zidan: “...ez ditut oraino zuk igorri kantu guziak etsaminatu; bakarrik, ikusi dut faltak badirela...”

“Garbiki dugun *iker* gure kontzientzia” (1/7), etzait iduri lengo mendean Luzaiden —ez Hazparren ere!—, herriaren agoan ibiliko zela. Nik beti aditu izan dutana Luzaiden, Juan Cruz'ek Kaliforniatik diona da: “*Garbiki esamina gure kontzientzia*”. Zenbat

aldiz ez da ateratzen “esaminatze” hori Bordelen bertsutan!!!

Aita Onaindiari ere idatzi nion beste bertsu paper zenbait kantu onendako ibili ote zuen jakiteko. Eskutan daukat bere erantzuna: “Katxo’ren olerkia, nere bilduman agertzen dena, Mendiage’n *Eskualdun kantuak*, Chile’n (1900) argitara emonak dakar... Ahapaldiak baliteke nahasiak izatea, baita bateren bat moztua agertzea ere: beste ainitz ere orrela aurkitzen ditugu gure bertso-liburuetan; errua jakin ez noren lepo bota”.

Eta gero, bertsulariaren etxe bereko semeak diona: “...kantu hotarik zenbait ikasi nituen *original kopiatarik* eta orain goguan ditud anitzak”. Ori, eta lehenbizikoik gogora etorri zitzakon kantua, hau gertatzea... ez dira bi soseko arrazoinak.

Berak emaiten digu orduan zuen izen zaharra ere Auek dira Juan Cruz Arrosagaray’ek asieran emaiten dituen itzak:

### “MUNDUKO ZUZEN BIDIAIN KANTIAK”

Juan Echamendi—LUZAIDE—Bordel’ek emanak.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.<sup>o</sup> Labayen*: MALENTXXO, ALARGUN!
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (*Bizitza ta bat bateko bertsoak*).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.

22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.º Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PE-RIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi se-narrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BER-TSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BE-  
RRI ONAK.
38. *Sebastián Salaverriá*. NERONEK TIRAKO NIZ-  
KIN.
39. *Bertsolariak*. AMAR URTEKO BERTSO-PAPE-  
RAK.
- 40-41. *Jose Ramon Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. *Bertsolartak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).
44. *Piarres Larzabal*: HILLA ESPOSATU.
- 45-46. *José María Satrústegui*: BORDEL BERTSU-  
LARIA.



1027929

JB-919

